

hh
hik hasi

182



IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA • ARANTZA ZUGAZAGASTI •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • ASTEKO PROTAGONISTA

• EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA • KARMELE JAIO

10 URTEK
AURREA

BELDAREN HEGALDIA

IRATI BEDIAGA
ENRIQUE MORETE

Nahiak hamar urte ditu, eta, bere lagunekin batera, balleta ikasteko izena eman du. Sabelean sentitzen dituen kili-kiliak tximeletak direla esango diote etxekoek.



10 URTEK
AURREA

EULI BAT DUT BIHOTZEAN

LEIRE BILBAO
MAITE GURAUTXAGA

Gorka arraro sentitzen da. Kafkaren Metamorfosia liburuan bezala, ezberdin jaiki da gaur. Izan ere, gauean euli bihurtu dela pentsatzen du.



10 URTEK
AURREA

SIMON IPUINEN MUNDUAN

ARRATE EGANA
INAKI G. HORGADO

Zoritzarrekoa sentitzen da Simon, gurasoek ez diote jaramonik egiten, eta eskolakideek ere ez (Maiden kenduta). Horregatik eroriko da egun batez Ipuinen Mundura.



12 URTEK
AURREA

TRIPOLI DOKTOREA

KARLOS LINAZASORO
BRUNO HIDALGO

Anbulatorioko itzarongela lepo zegoen, gainezka, Tripoli doktorea eta Olga Tokarczukowa erizaina prest zeuden gaixoak artatzeko. Tripoli doktoreak nahikoa lan bazuen sudurreko zulotik irten zitzaien geranioarekin zer egin ez zekiela.



XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI

elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



10
gaia

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Hizkuntzen-irakaskuntza jardueraren azterketa egin eta irakasleen prestakuntza bultzatzeko —etaaldi berean ikertzeko— Hiprest sarea sortu dute EHUko eta MUko irakasle multzo batek. Metodologia hauxe da: irakasle-gaien edo irakasle hasiberrien lan-jarduna bideoan grabatu, eta ondoren, bideo hori ikuskatzea eta hausnartzea prestatzailearen laguntzaz.



16
elkarrizketa

ARANTZA ZUGAZAGASTI

37 urteko ibilbidea du Santo Tomas Lizeoko irakasle ohiak. Haur Hezkuntzan aritu da nagusiki. Hizkuntzen irakaskuntzan espezializatu da eta materialgintzan nahiz irakasleen prestakuntzan ere jardun du. Irakasleek ilusioz beteak izan behar dutela dio, enpatia handikoak eta beti prestatzen ariko direnak: “Teoriatik ondo gabilitza, baina praktika gehiago behar dugu”.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA Norbere burua lanean ikusi eta aztertzea da gakoa

18 elkarrizketa

ARANTZA ZUGAZAGASTI Santo Tomas Lizeoko irakasle ohiak

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

28 esperientziak

EUSKARAZ BIZI: Euskararik gabe ezin izan, ezin bizi

32 ekarpenak

Asteko protagonista.

36 galdeidazue

Zer ekarpen egin diezaioke eskolan diharduen irakasle edo hezitzaile bati Gestalt ildoko prestakuntzak? **MARITXU JIMENEZ**

40 hik hasi-ren proposamena

KoloreKolore Nahierara pintatzeko eta osatzeko ilustrazioak

42 Atzeko atetik **KARMELE JAIO**

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2013-10-16). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan itazaroa aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

hik hasi: hezkuntzari garrantzia ematen diogunon komunitatea



26. liburu-monografikoa DOAN jasoko dute harpidedunek hik hasi aldizkariarekin batera. Alfredo Hoyuelos europar doktoreak koordinatu duen liburua 13 ekarpenek osatzen dute.

Kaleko prezio arrunta: 15 euro.

Harpidedunentzako prezioa: 10 euro.

Eskaerak egiteko: <http://www.hikhasi.com/materiala>

editoriala

azaroa

Familia, ikastetxearen aliatua



“Umearen ongizatea ez da soilik familia eta eskolaren egitekoa, baizik eta gizarte osoaren inplikazioa behar da. Prebentzio horrek gizarte osasuntsuagoa eraikitzen lagunduko liguke”

Asko eskatzen zaio eskolari. Konpententziaz jabeturiko haurrak osatzeaz gain, kritikoak, solidarioak, hezkidetzailleak, euskaldunak... izan daitezen eskatzen zaio. Eta ikastetxeak ba al du horretarako tresnarik, baliabide ekonomikorik, jenderik, espaziorik...? Badu haurrak hezten lagunduko dion aliatu bat eskolak: familia.

Haurren ongizatea eta garapena lehenesten dituzten bi sistema dira ikastetxea eta familia, helburu berbera duten bi sistema, beraz. Sarrri, baina, bizkar emanda aritzen dira lanean. Aurreko *hik hasi*-n ikusi ahal izan genuen eran, batzuek besteek susmoak dituzte: familiak eskolak berari buruz iritzi txarra duela uste ohi du, eta alderantziz. Joxe Amiamaren tesiak erakutsi duenez, ordea, gauzak bestela dira: ondodakite biek elkarren beharra dutela konpartitzen duten helburu hori aurrera atera dadin. Eta sistemek uste baino iritzi hobea dute bata besteari buruz.

Hik Hasi-k Haur Hezkuntzari eskaintzen dizkion jardunaldietan familien eta eskolaren arteko harreman osasuntsu bat bideratzeko klabeak eman zituzten hizlariek. Has-teko, Ategorritxo haur-eskolako hezitzaile Leire Garrok eta Josune Belamendiak gogoratu zuten eran, haurra bere familiarekin dator eskolara, eta “haur bakoitza onartua sentiarazi behar dugu bere familia-ereduan”. Nola? Myrtha Choklerrek eman zuen erantzuna: Elkar ezagutuz. “Inork ez du errespetatzen ezagutzen ez duena. Ezagutzen ez duguna etsai bihurtzen da, amenazu. Horrek esan nahi du elkar ezagutze-ko denbora hartu behar dugula”.

Ikastetxeak komunitateko parte dira, eta familiei eta komunitateari zabalik egon beharko lukete. Eskolak topagune izan behar duela esan zuten behin eta berriz hizlariek. Zer nolako jendartea eraikiko dugu bizi garen komunitate horri bizkar emanda, itxita, lan egiten badugu?

Gurasoek ikastetxearen beharra dute. Baina ikastetxeek ere familien premia dute, haien babes, errekonozimendua eta oroz gain sostengua behar dute. Orain —krisi egoeran, murrizketen erdian, LOMCEren mehatxupean— inoiz baino gehiago.

Familiaren eta ikastetxearen arteko harremana, alabaina, ez da beharrezkoa Haur Hezkuntzan soilik. Hortik aurrera, LHn eta DBHn ere espazioak, denborak eta zubiak eraiki behar dira eragile guztiok partekatzen dugun helburua aurrera atera dadin. Nork beretik jarritz, eskolak eta familiak, baina baita gizarteak eta administrazioek ere. Huheziko Elena Lopez de Arana eta Alexander Barandiaran irakasleen hitzak geure egiten ditugu: “Umearen ongizatea ez da soilik familia eta eskolaren egitekoa, baizik eta gizarte osoaren inplikazioa behar da. Prebentzio horrek gizarte osasuntsuagoa eraikitzen lagunduko liguke”.

hizpide



LOMCE legea onartu da herritarren protestapean

Bakardadean onartu du PPK hezkuntza erreforma Espainiako Kongresuan. Ia bi urte karguan, eta Jose Ignacio Wert Hezkuntza Ministroak ez du lortu oposizioaren inolako babesik. Gainera, ohar argia egin dio oposizioak gobernuari: legea bertan behera utziko dute PPK gehiengoak galdu orduko. “Hilda jaio da erreforma”.

Herritarrek ere LOMCE legearen plantoa eskatu dute. Horren adibide dira urriaren 24ko protestak edota urriaren 12an Bilboko kaleetan egin zen manifestazio jendetsua Hegoaldeko erakundeei legea ez aplikatzera dei egiteko. 10.000 lagun baino gehiago elkartu ziren eta Bilboko ka-

leak zeharkatu zituzten “Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki. LOMCEri ez!” lelopean.

Deitzaileen izenean Hik Hasi-ko koordinatzaile Joxe Mari Auzmendik hartu zuen hitza: “Hezkuntza eragile ugari elkartu gara hemen, LOMCEren aurka gaudela adieraztera, ondorio kaltegarriak ekarriko dituelako gure ikastetxeetara”. Gobernuak jarrera bat hartu behar dutela gaineratu zuen: “Eskatzen diegu ez dezatela legea martxan jarri, ez dezatela LOMCE aplikatu gure eskoletan”.

Era berean, azken hamarkadetan hezkuntzan egindako lanari jarraipena emateko konpromisoa agertu zuten.

Euskal curriculumak garatzeko bideari ekin diote

Euskal curriculumak garatzeko eta hezkuntza lege berri baterako pausok emateko ibilbidea hasi dute Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntzako eragile zenbaitek. *Haziberri 2020* izena jarri diote egitasmoari. Hiru urrats zehaztu dituzte bide hori egiteko, eta abian jarri dute lehenbizikoa: eredu pedagogikoari buruz eztabaida zabalduko dute, bakoitzaren iritzia bildu abendurako, eta otsailerako irizpideak bateratu. Horren odoren taxutuko dituzte curriculum dekretuak, eta, aurrerago, hezkuntza legea.

Oraingoz ondoko hauek osatzen dute taldea: Ikastolen Elkarteak, Kristau Eskola, Sortzen Ikasbatuaz, Sarean, EHUko irakasle fakultateak, Ikasgiltza, Eusko Ikastola Batza, Erkide, EHIGE, BIHE, Irakaskuntza Zentroen Elkarte Autonomoa eta Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak. Sindikatuek eta ikasle taldeek ez dute momentuz parterik hartzen.

Hiru oinarriekin egingo dute euskal curriculumak garatzeko bidea: eragileek adostu eta garatutako euskal curriculumak, gobernu-programa eta Europako Batasunaren gidalerroak. Era berean, hiru zutabe ditu planak: hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko propioa, euskal curriculumaren dekretua eta Euskal Hezkuntza-aren Legea.

izan da

Iparraldean lehen mailako ikasleen herena hasten da euskaraz ikasten

Guztira 9.250 ikaslek (% 36,6) eman dute izena euskaraz ikasteko lehen mailan, eskola publiko elebidunean, Seaskan edo pribatu giristinoan. Era berean, 16.018 lagun (% 63,4) ari dira frantses elebarkarrea ikasten. Hala ere, azken hamar urteetan ikasle elebidunen kopuruak nabarmen egin du gora, % 30,4tik % 43,6ra hain zuzen.

Bigarren mailan (12 urterekin), ordea, kontuak bestelakoak dira. Nahiz eta 39 kolegiotatik 27tan es-

kaintza elebiduna izan, eredu horretan parte hartzen dutenak gutxi dira: publikoan, 804 ikasle; giristinoan, 667; eta Seaskan, 644. Lizeoetan are baxuagoak dira kopuruok: 198, publikoan; 120, eskola giristinoan; 195 Seaskan.

Mobilizatorako deia

Euskara hil nahi izatea leporatu dio Seaskak Frantziako Gobernuari. Paxkal Indo Seaskako lehendakariaren esanetan, Paueko prefetak eta

Baionako suprefetak Hendaiako eta Beskoitzeko ikastolen etorkizuna oztopatu nahi dute, Frantziako *Falloux legea* urratzen duela argudiatuta. Hendaiako kasuan egoitza eraikitzea debekatu zaio herriko etxeari, eta Beskoitzeko ikastolaren kasuan, lur publikoa erabiltzea.

Egoera horren aurrean bi bide hartuko ditu Seaskak: mobilizazioa batetik eta auzibidea bestetik. Seaskak bat egin du Batera plataformak azaroaren 30ean Maulen antolatu duen manifestaziorako deialdiarekin. Gisa berean, iragarri du abenduaren 28an manifestazioa egingo duela Baionako kaleetan.

Bizikidetzaren sustatzeko 'Gizalegez' hitzarmena abian da

Elkarbizitza hezkuntzatik sendotzeko akordioa sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta hemezortzi eragilek. Oinarriekin ados egon arren, ELAK, LABek eta EILASEk ez dute ituna izenpetu. Aterik ere ez dute itxi, ordea, eta Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren zuzendariak azaldu bezala, akordioa irekia da eta edonork edonoz izango du bat egiteko aukera.

Hitzarmenak ez dio erreferentziarik egiten Euskal Herriko gatazkari, ezta indarkeriari ere. Baizik eta "gatazka suntsitzaileak", "giza eskubideen urraketak" eta "mota guztietako indarkeria fenomenoak" aipatzen dira bertan. Sinatzaileen ustez lau jatorri

dituzte horiek: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Hortaz, horiei aurre egiteko hitza eman dute.

Hitz jokoa eginaz lau oinarri etiko zehaztu dituzte: kenketa, "gure ikuspegia beti osatu gabea dela onartzea". Batuketa: "Zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea". Zatiketa: "Egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea". Biderketa: "Giza duintasunaren goi mailako balioa ulertzea". Lau ardatz horien bitartez, hiru helburu nagusi bultzatu nahi dituzte: indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizarte elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura.

Eskola erlijiosoetan protestan jarraituko dute itunik lortu ezean

Gatazkak aurrera darrai Kristau Eskolaren eta IZEAREN ikastetxeetan lan itunean aurrerapausorik ez dutelako egiten. Beste itun bat egin arte oraingoari eutsi nahi diote sindikatuek, hori adostu zutela diote-eta. Patronalak berriz kontrakoa dio.

Sindikatuak auzitegiaren bidea abiatu dute. Patronalak lan hitzarmena urratu duela salatu dute Espainiako ituna, balditza eskasagoak dituen, hartu nahi duela oinarri. Egoera aldatzen ez bada azaro amaieran mobilizazio astea antolatzeko asmoa dute.

hizpide



Kirolariei ezarritako zigorrek, izaera hezitzailea

Eskola Kirolaren araubidea ezartzen duen dekretu berria prestatu du Eusko Jaurlaritzak gaur egun arlo horretan indarrean dagoen araudia eguneratu eta osatzeko helburuarekin. Dekretuak arautzen duenaren arabera, kirolariei ezarritako zigorrek izaera hezitzailea, prebentiboa eta zuzentzailea izango dute.

Arau-haustek hiru mailatan sailkatzen dira, larritasunaren arabera: arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak, bai kirolariek burututakoak, bai teknikari eta zuzendarienak eta baita erakundeenak ere. Arau-hauste oso larrien artean, nabarmentzekoak dira kirolean indarkeria, sexismoa, arrazismoa, xenofobia, homofobia eta intolerantzia pizten duten aiderazpen publikoak eta ekintzak; edo kirolariei, epaileei, teknikariei, kirol-agintariei, ikusleei edo txapelketan esku hartzen duten gainerako pertsoneri eraso egitea, lardieratzea edo hertsatzea.

Eusko Jaurlaritzako ordezkarien arabera, eskola kirolaren izpirituarekin bat egiten du dekretuak, eta hark bezala, eskolako neska-mutilen formazio integrala eta jarduera fisiko jarraitua sustatzea hartzen ditu helburu.

Tratu txarrei aurre egiteko, ertzainek hitzaldiak emango dituzte eskoletan

Portaera desagokiak, indarkeriazko gertaerak, berdinen arteko tratu txarrak, eskola-jazarpena (bullying eta cyberbullying) eta, oro har, eskolaren esparruan elkarbizitzari eragin diezaiokeen edozein egoera gertatuz gero hartu beharreko prebentzio-neurriak buruzko hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzako bi Sailek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Segurtasun Sailak. Hala, 150 ertzain boluntariok hitzaldiak emango dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gizekoako eskoletan.

Haur Hezkuntzari buruzko monografikoa kalean



Haur Hezkuntza. Zenbait abo-tsetarako abestia izenburupean 26. monografikoa argitaratu du Hik Hasi-k, Alfredo Hoyuelos Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak koordinatuta. Haur Hezkuntzaren munduarekin zerikusia duten zenbait profesionalak osatutako proiektua da. Guztira 26 lagunek hartu dute parte eta 14 artikulua idatzi dituzte 0 urtetik 6 urtera arteko hezkuntza-espereizari buruz.

Haur Hezkuntzari dagokion alorrean eskaria zegoela ikusita, hainbat jarduera burutu ditu Hik Hasi-k, hala nola, Modena eta Reggio Emiliako udal haur-eskolak ezagutzeko antolatutako jardunaldi eta bidaiak, Pikler-Lóczyko ildoak ezagutzeko egindakoak, 0-3 zikloko hezitzaileentzako formazioa, etab. Bide horri segida eman nahi dio monografikoak.

Harpidedunek etxean jasoko dute liburuxka. Horrez gain, Hik Hasi-ren webgunean (www.bikhasi.com) salgai jarriko da 15 euroan. Harpidedunek beste ale bat nahiko balute 10 euroan erosi ahalko lukete.

izango da



Hik Hasi-k 'Hezkuntza Euskal Herrian atzo eta gaur' jardunaldian parte hartuko du

Euskal Herriko iraganeko eta oraingo hezkuntzaz hausnartzeko eta etorkizuneko gakoak emateko jardunaldia antolatu du EHUK azaroaren 14 eta 15erako eta bertan parte hartuko du Hik Hasik ere. Ostegun, 9:30ean hasita Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Areto Nagusian egingo da saioa. Sarrera doakoa da.

Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira bertan: Gipuzkoako ikastolak frankismoan; Euskal Herriko lanbide heziketa frankismo garaian; emakumeak makilen garaietan; Emakume Abertzale Batzaren hezkuntza-egitasmoak; hezkuntza kalitatearen hobekun-

tza, hezkuntza legeetatik haratago; Iparraldeko ikastolak; hezkuntza berrikuntza lanbide heziketan, etab.

Ostiralean, 15:30 eta 17:30 artean "Hezkuntzak arduratzen gaitu" izenburupean tailerra egingo du Hik Hasik. Hezkuntza antolaketa- ren, herri ikuspegiaren edota prestakuntzaren gainean aurkezpen laburrak egin ondoren, hezkuntza nola hobetu eztabaidatuko da. Hizlarien artean izango dira, Matilde Sainz eta Agurtzane Azpeitia Mondragon Unibertsitateko irakasleak, Paulo Iztueta soziologoa eta Miren Camison haur filosofiako irakaslea.

Ikasle etorkinen inguruko mintegia

Azaroaren 7an, osteguna, "Hezkuntza Etorkinekin" XI. Mintegia egingo da "Ikasle etorkinen eskola errendimendua eta gizarteratzea" izenburupean Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Areto Nagusian. Izena emateko 943 018264 telefono zenbakira deitu edo maria.martinez@ehu.es helbidera idatzi behar da.

Eskola alternatiboen gaineko ikastaroa

"Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako" izenburupean ikastaroa egingo da azaroaren 16an eta 23an Eibarko Markeskoa Jauregian. Helburua, indarrean den hezkuntza sistemaren inguruko hausnarketa ahalbidetzea, pedagogia berriak eta eskola-eredu ezberdinak ezagutzea eta hezkuntza-irakaskuntza prozesua osasuntsuago egiteko gakoak ezagutzea da.

GAIA

Irakasleen prestakuntza

*Norbere burua lanean ikusi
eta aztertzea da gakoa*





Irakaskuntza jardueraren azterketa egin eta irakaslearen prestakuntza bultzatzeko —eta aldi berean, ikertzeko— Hiprest sarea sortu du EHuko eta MUko irakasle multzo batek. Hizkuntzako irakasleen prestakuntza dute xede, eta praktika oinarri hartuta, formaziorako bide berri bat ireki nahi dute. Horrexegatik irakasle-gaien eta irakasle hasiberrien jardueraren analisisan zentratzen dira, hau da, lana bera dute jarduera formatzailea. Gelako jarduna bideoan grabatu, eta ondoren, bideo hori ikuskatu eta hausnartzen dute irakasle-gaiek edo hasiberriek prestatzailearen laguntzarekin. Horixe da prestakuntzarako proposatzen duten eta darabilten metodologia. Izan ere, irakats-jarduera hobetze bidean jarriko duten aldaketak ez dira etorriko irakasleari kanpotik kontseiluak ematen zaizkiolako, baizik eta irakaslea bera konturatu delako bere jardueraren muinaz, taxuz egindakoaz eta hobetu beharrekoaz.

G

Formaziorako, praktika oinarri duen bidea

Unibertsitatean irakasle titulua atera duenari eskolako atea irekitzen zaizkio, badiu homologazioa irakaskuntzan aritzeko. Ziurrenik, ordea, unibertsitatean eskuratutako jakintza eta gaitasunak ez dira nahikoa izango bizitza osoan irakasle izateari eusteko. Are gehiago, abiada bizian aldatzen ari den gizartearen, beste lanbideak bezalaxe, irakasleen lanak ere asko eboluzionatu baitu azken urteetan. Hezkuntzak bizi duen orientabide “kudeatzaileaz” hitz egiten da edota irakaskuntzaren “zenbakikeriaz” (emaitzatarako bideratutako hezkuntza), eta horri gehitu behar zaio, sari irakasleek, irakasteaz gain, laguntzaile psikologiko eta sozial lanak egin behar izaten dituztela, gazterien kulturatik at dauden balioen transmititzaile direla, etab.

Egoera konplexu horretan mol-datuko diren ondo prestatutako irakasleengan jartzen da begirada, baina unibertsitateetik atera berri den irakasleak ereduak behar ditu, erreferentziak, baliabideak eta laguntza. Beste esparru batzuetan esan ohi da arituz ikasten dela ofizioa eta gauza bera gertatzen da irakaskuntzan ere. Norbere burua lanean ikusi eta aztertzean konturatzen dira irakasle asko, aurrez uste zutenaren kontrara, ikasle batzuei ia kasurik ez dietela egin, uste baino azkarrago hitz egin dutela edota azaldutakoa ikasle gutxi batzuek baino ez dutela ulertu.

Horrexegatik, irakasleen prestakuntzarako azken joerak gelako jardunean egiten den lanaren analisisan oinarritzen dira. Eta zentzu horretan, unibertsitate aldiaren eskoletan egiten diren praktikek berebiziko garrantzia hartzen dute.

Baina, nola “profesionalizatzen” dira irakasleak? Zer arazori egin behar

diete aurre hasiberriek ofizioan has-tean? Nola ikasten da irakasle ofizioa? Azkartu liteke profesionalizazioa? Irakasle eskarmentudunek zer egiteko lukete hasiberrien prestaketan? Galdera horiei erantzuteko eta XXI. menderako irakasleak prestatzeko Hiprest iker-sarea sortu dute EHuko BERBA taldeko eta Mondragon Unibertsitateko MIKER taldeko irakasleek, Genevako Unibertsitateko CRAFT taldeko Itziar Plazaolaren laguntzarekin.

Hizkuntzaren irakaskuntzako irakasleak formatzen aritzen diren EHuko eta MUko formatzaile-ikertzaileek osatzen dute beraz Euskal Herriko Hiprest ikerketa-sarea. Orain dela hiru urte inguru sortu zen, irakasle-gaien edota irakasle hasiberrien prestakuntzarekin arduratuta zebiltzan irakasle multzo baten artean. Irakasleen profesionalizazioa ikertzea eta lantzea da taldearen helburua, eta oro har, didaktikaren eta pedagogiaren alorrak jorratzen badituzte ere, hizkuntzako irakasleen prestakuntzan zentratzen dira. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza nahiz hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza dituzte jomugan. Xede beraren inguruan indarrak batu eta elkarlanean aritzeko elkartu dira, eta jardunean denbora asko ez badaramate ere, hasi dira hainbat jardunaldi, artikulatu eta ekimen burutzen, eta barne lanak ere aurrera doaz. Hiprest taldeak Donostian egin duen bilera batean elkartu da *bik hasi* Uri Ruiz Birkandi BERBA taldeko ordezkariarekin, Matilde Sainz MIKER taldekoarekin eta Itziar Plazaola Genevako Unibertsitateko ikerlariarekin.

Formaziorako bide berri bat ireki nahian sortu zuten Hiprest eta horretan dihardute. Bide berri horren mui-

Irakasleen prestakuntza

nean irakaskuntza jarduera dago, praktika aztertzea eta praktika egunerokoan txertatzea, finean irakasle-gaia irakaskuntza praktikarako, irakats-jardueretarako prestatzea da xedea. Ekintza-teorietan oinarrituz, irakasle hasiberriaren esperientzia dute aztergai. Irakats-jardueraren azterketa egin nahi dute irakaslearen prestakuntza bultzatzeko eta, aldi berean, ikertzeko.

Sainzek azaldu bezala, profesionaltasunean formatzeko bide berri bat urratu nahi dutelako elkartu dira eta dagoeneko urratzen ari dira: “Jardunaldiak antolatu eta artikuluak publikatzeaz gain, metodologia berriekin saioak egiten hasiak gara eta lehen esperientziak baditugu”.

Sainzek, Ruiz Bikandik eta Plazaolak urte askoko esperientzia dute irakasleen prestakuntzan. Eskarmentu handia dute jendeari teoriak zer dioen azaltzen eta praktikak nola egin behar diren esplikatzeko. Baina konturatu dira, sarri, eurek predikaturako horrek praktikan eragin kaskarra izan duela, eta uste dute bideak bestelakoa izan behar duela: “Kontua ez da norbaitek goitik esatea zer egin behar duzun eta nola egin behar den, hori ere ondo egon liteke, baina benetan aldaketa ez dator hortik. Norberak bere lanean ari delarik lana aztertzeak etorriko da aldaketa”.

Prestaketa eta ikerketa xede

Hiprestek helburu bikoitza du: irakasleen prestaketa batetik, eta prestaketaren ikerketa bestetik. Ruiz Bikandik dioen moduan, batak bestea elikatzen du. Teoria eta praktika uztartzen dira Hipresten. “Guk prestakuntza egiten dugu eta prestakuntza ikertzen dugu, nola prestatzen



Hiprest iker-taldeko koordinatzaileak: Uri Ruiz Bikandi, Matilde Sainz eta Itziar Plazaola, hurrenez hurren.

den hasiberria eta nola prestatzen den profesionala, lanean dabilena. Prestatze-moduak, bideak, oztopoak... ikertzen ditugu. Gaur egun jende askok pentsatzen du edonork bali dezakeela irakasle izateko, irakasle izatea oso erraza balitz bezala, baina ez da horrela. Gure zeregina da irakasleen lanaren atzean dagoen konplexutasuna, zailtasuna eta finezia hori agerian uztea, baina ez gatoz kritikatzera, gauzak ahalik eta hobekien egiteko behar diren faktoreak aldi berean maneiatzen saiatzera baizik”.

Irakasleen prestakuntza bera prozesu modura ulertzen du Hiprestek, hau da, irakaskuntza bera, eta baita prestakuntza ere, jarduerak diren aldetik aztertzen ditu. Prestakuntza bera prozesutzat hartzeak esan nahi du irakaslearen hasierako ekintzak aztertzea hasiberriaren ekintzetatik aurrerabidea zer-nolakoa den jakiteko.

Irakaskuntzarako formatzeak,

klasean ekiteko formatzea esan nahi du, heziketa-ekintzak aurrera eramateko formatzea. Formazioan beharrezkoa da ikaslearen edo irakasle hasiberriaren gaitasunetatik abiatzea, hau da, ekiteko dituen ahalmenetatik.

Prestakuntza bera prozesua den heinean, lehenik eta behin, zuzenean ikaslearen edo irakasle hasiberriaren ekintzetatik abiatuta, irakaskuntzarako beharrezkoak diren eta hizkuntzen irakaskuntzarako garrantzitsuak diren ekintza tipikoak identifikatu behar direla diote unibertsitateko irakasleek. Bigarrenik, prozesuan zehar hasiberriak dituen gaitasunen eta ahalmenen transformazioa ikertzen da eta irakaskuntzako ekintza egoiak egitera bideratzen laguntzen zaio. Hirugarrenik, formakuntza-ikerakuntza metodoak eraikitzen dira eta aldi berean horrek irakaslearen gain duen eragina kritikoki aztertzen da.

Nola egiten da lan jardueraren azterketa?

Hiprest iker-sareak irakasle-gaien eta irakasle hasiberrien lanaren gaineko azterketa eta lanketa egitea du helburu, nola practicum aldian hala ikastetxeko jardunean. Horrexegatik metodologia erabilienetako bat da gelako jardunaren bideo grabazioak egitea eta ondoren grabazio horiek ikuskatu eta horien gaineko hausnarketa egitea, prestatzailearen laguntzarekin. Bideoan grabatzeak aukera ematen dio ikasleari edo irakasle hasiberriari bere jarduerarekin edo lanarekin aurrez aurre jarri eta konfrontatzeko, eta behin bizitakoa berriz bizitzeko.

Jardueraren analisisa –formaziorako eta ikerketarako metodoen oinarria– alor zentrala bihurtu da giza eta gizarte zientzia gehienetan, horien artean baita hezkuntza zientzietan ere, zehazki, irakasleriaren formazioan. Modelo klasikoagoekin kontrastean, formazio-eredu horrek lehen planoan jartzen du lan erreala, hau da, irakasleak berak egiten edo eraikitzen duen irakaskuntza-modu hori.

Plazaolak gogoratzen duen moduan, kontua ez da soilik grabaketa bat ikusi eta gero hori zer iruditzen den (ondo, gaizki...) esatea, baizik eta metodo zehatz baten bidez aztertutako jarduera horretan identifikatzea zer doan ondo eta zein lirakeen hobetu beharreko alderdiak: “Nola baiteko mikroskopio bat jartzen dugu

ahalik eta zehaztasun handienarekin aztertu ahal izateko jarduera horretan xehetasunik txikiena ere nola ari den aurrera eramaten”.

Era berean gaineratzen du prestakuntza ez dela jakintsu batek esan dezakeena kontuan hartzea eta kito, baizik eta bitarteko metodologiko baten bidez norbera egiten ari den hori behatzea eta horri buruz hausnartzea. “Ikerketa askok aditzera eman dute, irakasleek ez dakite, benetan, nola irakasten duten. Grabazioak egin eta horiek ikustean eta aztertzean jabetzen dira. Xedea da taldean aztertzea bakoitzaren lana. Hasieran talde txikitik egin behar da. Inork ez du atsegin aztertua izatea. Dena den, hobetzeko bidea dela jakinda, prest egon beharko genuke taldean aritzeko. Egokiena ikastetxeko proiektuan jasotzea litzateke. Alegia, lan-taldea edo lanbidea hobetzea, ez pertsona bakoitzaren lana soilik. Azken finean, lanbide batekoak gara eta taldean egin behar dugu lan. Horrela emaitza taldearena izango da, proiektuarena”.

Egile batek jarduera bat aurrera daramanean zenbaitetan izan ditzake arrazoi on batzuk egiten duena egiten duen bezala egiteko. Jarduteko une horretan esku hartu duten baldintza horiek, arrazoi horiek edo egoera horiek aztertu nahi dituzte Hipresteko kideek, ondoren aldatu beharko li-

tzatekeena zer den ikusteko. Norbere jarduera hainbat aldiz ikusita kezkak sor daitezke: jarduerako une bat hobetzeko aukera edo beharra dagoela irudituz gero, zein puntutan jokatu beharko litzateke beste modu batera? Nire burua nola defendatu dut momentuan? Zergatik hartu dut jarrera hori? Eta jokaera horrek zein ondorio izan ditu? Irakasleek ere beste profesional guztien antzera gaitasun nahiz indar mugatuak dituztela ohartarazten du Plazaolak, horrek bideratzen dituela hainbatetan hartzen dituzten erabakiak hartzerantz. “Hobeto ulertu behar dugu zergatik egiten diren gauzak egiten diren bezala eta ez hasieratik esan, ‘hori gaizki dago’. Beste era batera jokatu behar da, atentziora jartzea nahi dugun horretan fokua jarriz, eta hala hasiberria bera konturatuko da hainbat jokaeraz: ‘hemen haur batzuk albo batera utzi ditut, hemen aspertu egin dira...’ Horrek zuzenean egileari klabeak ematen dizkio ekiteko modu hori aldatzeko, hobetzeko. Aldaketa hori ez da etorriko kanpotik kontseiluak ematen zaizkiolako, baizik eta agertzen diren heinean egilea bera konturatu delako bere jardueraren muinaz”.

Metodologia horrek irakasle mota guztientzat balio du, eta gainera, metodologia antzekoak erabiltzen dira beste lanbide batzuetako prestakuntzetan ere, goi mailako kirolean, kasu.

Irakasleen prestakuntza

“Lanbide guztien lanaren azterketa interesgarria bada ere, irakaslearen lana zer den aztertzea interesatzen zaigu guri, gelan zer gertatzen den ezagutzea eta hortik abiatzea. Irakasleak lana nola egiten duen jasotzea”.

Jardueraren azterketaren bidezko lanketak profesionalizazioa sendotzeko balio du Plazaolaren aburuz, edota *practicuma* eraginkorrako bihurtzeko. Praktika-aldia azken urteetan luzatu egin den arren eta ikasleek eskola bat baino gehiagotan praktikak egin eta eredu diferentek ezagutzeko aukera duten arren, horrekin ez da nahikoa, ikasleak berak izan behar du laneko esperientzia jasotzeko aukera. “Praktika-aldia orain

egiten den bezala egin edota proposatzen ari garen metodologiarekin egin, iruditzen zaigu alde nabarmena egon daitekeela, eta metodologia berriarekin askoz ere etekin handiagoa aterako zaiola. Praktika-aldia egin duzu, egon zera hainbat astean eskola batean, hor noski esperientzia bat jaso duzu, baina esperientzia hori ez bada lantzen, ez bada beste norbaitekin berraztertzen, berrikusten, ez du fruitu asko emango. Aldiz, hori grabatuta gordetzen baduzu eta zure prestatzailearekin edo antzeko zeregina duen norbaitekin berriro gertaera horietara bueltatu, elkarrekin ikusi eta aztertzen baduzu, askoz ere emaitza hobea lortuko duzu: ‘Hemen badiru-

di ikasleak aspertzen hasi direla... eta orduan akaso ariketa hau ez al zen luzeegia? Ulertu al dute?... Ikusten da badaudela lau ikasle txoko batean eta ez dutela batere parterik hartzen, nola egingo dugu ikasle horiek gureganatzeko ariketa kolektibo bat egiten dugunean?’ Hamaika gauza berriro ikusiz, aztertuz, landuz gero, asko hobetu eta profesionalizatu liteke lana”.

Norbere buruarekin konfrontatuz

Jardueraren azterketaren gaineko hausnarketa egiteko auto-konfrontazioa da erabiltzen den metodoetako bat. Formatzen ari den pertsonak formatzaile-ikertzailearekin batera eskolako jardueraren grabazioa ikusten

Irakasleen lana agerian jartzeak profesionalizazioa areagotuko luke

Lan-jardueraren azterketa taldean egiteak, hau da, norbere lan egiteko modua besteen aurrean erakustea errezeloa eragiten die irakasle askori. Inguruko enpaimen beldur dira hainbat eta beste batzuei euren buruari erreparatzeak lotsa eragiten die. Hipresteko kideek diotenez, irakasleen prestakuntzarako proposatutako metodologiaren zailtasunetako bat gelako jardunaren grabaziotik sortzen da, aurreiritzi handiak baitaude grabazioaren aurrean.

Kultura berri bat sortu beharko litzatekeela iruditzen zaie, irekiagoa eta eztabaidarako tokia eskainiko duena, irakaslearen lana ez dela sekretuan, ezkutuan eta itxita egin behar den zerbait. Aitzitik, irekitasun horrek eta grabaketen azterketek fruituak eman ditzaten oso kontuz ibili behar dela uste dute: “Gure gerturatze horretan saiatzen gara ahal dela kritikatik ez abiatzen, baizik eta zuzenean lanaren beraren zailtasunak, oztopoak, erronkak eta antzekoak harrapatzen, ez egileak gaizki

egiten dituelako, baizik eta lanak berak berekin dituen tira-bira, oztopo, zailtasun, zama eta konplexutasunek arazoak sor ditzaketelako”.

Unibertsitateko irakasleak kritiko dira euren lanbidean jaso duten tradizioarekin. Eredu okerra izan dela uste dute, urtetan bakoitzak bere gelan isolaturik egin baitu lan. Tradizio horrekin apurtu eta irakaslearen lana agerian jartzea oso inportantea dela diote. Izan ere, eskola askotan aurrerapausoak egin dituzten arren, beste batzuetan gelako atea itxi eta ez dute euren burua ere ezagutzen. Jarrera hori defentsarako baliagarria izan daitekeela diote, baina azkenean irakaslearen kontra etortzen dela, jokabide horrek irakasleari berari ere segurtasun eza eragiten baitio: “Beste lanbide askotan ez da hori gertatzen, jendaurrean egiten dute lan, publikoan. Irakasleok ere geure lana agerian jarri eta besteekin partekatuko bagenu, horrek gure prestaketa eta profesionalizazioari onura besterik ez lioke egingo”.

du, eta bitarte horretan laneko jarduna komentatzen eta analizatzen dute.

Erabilitako metodologiak, hau da, auto-konfrontazioak aukera ematen dio egileari bere jarduerari zentzua emateko, izan ere bera da bizitakoaren gakoa ezagutzen dituenena. Giza jarduera ezin da ezagutu behatzen soilik, oso kontuan hartu behar dira egilearen arazoak, helburuak eta kezak, eta horiek behatzailearentzat ezkutuan egon daitezke. Horregatik, beste hainbat lanetan egiten den modura, ekintzen aztarnak, bereziki grabaketarenak erabiltzen dira ikaslea edo irakasle hasiberria bere ekintzaren aurrean jarriz, ekintzaren nondik norakoak agertu ditzan. Auto-konfrontazioari esker egileak, ikertzailearen laguntzaz, bere jarduera “kanpotik” behatu eta irakaskuntza ekintza berriak hobetzeko aldagaiak identifika ditzake.

Formazio-metodo horrek izaera dinamikoa du, aurrera eramaterakoa hainbat ustekabeko alderdi ager daitezke, bai testuinguru sozial jakin batean gertatzen delako eta baita taldekoa delako ere. Auto-konfrontazioak, ordea, egoera berrietara egokitu eta orain arte ezezagunak ziren egoeren aurrean hobeto moldatzeko aukera ematen du.

Irakasle-gaien edo irakasle hasiberrien jardura aztertzerakoan, badirudi hizkuntzen irakasleei dagokionez –eta beste irakasgaietako irakasleekin edota beste ofizioekin berdin gertatuko da– badaudela egiteko modu batzuk guztiek partekatzen dituztenak. “Ekintza tipiko” deitzen zaie eta, adituen esanetan, horien berri izateak asko lagunduko luke formazioa: “Mundua ezagutzeko dugun le-

hen modua da objektu, gertaera edo egoera tipiko bat, tipo batetakoa baltz bezala atzematea. Adibidez, egoera bat ‘erosketa saioa’ dela atzematen dugu badugulako egoera-ekintza tipo horien esperientzia. Tipo hori objektiboa da, barnean sartzeaz bat identifikatzen dugu eta partaideek elkar ulertzea bideratzen du”.

Plazaolak azaldu bezala, hizkuntzen irakaskuntzan ekintza tipiko bat da adibidez, irakasle batek ikasle talde batekin elkarriketan ari delarik, nola kudeatzen duen ikasleen hizketarako txanda; beste bat izan liteke, esaterako, aurrezagutena, hau da, edozein irakasgairekin hasi baino lehen irakaslea saiatuko da ikasleek dagoeneko gai horri buruz dituzten aurrezagutzak aterarazten. Baina nola landu aurrezagutzak modu interesgarri batean ikaslearengan irrika sortarazteko? “Ikusi nahi genuke zein ezaugarri dituzten hasiberriek egindako ekintza tipiko horiek. Agian, hasiberriak saia daitezke aurrezagutzak ateratzen, baina akaso oztupoak aurkitzen dituzte hori egiterakoan, zer oztupo dira horiek? Jakingo bagenu non dauden oztupoak, zein diren zailtasunak, orduan eta zuzenago egin ahal izango genituzke gure prestaketak”.

Ondo bidean, Hiprest proiektuaren baitan, sareko hainbat partaidek aurrera eramango dituzten analisiek aukera emango dute hizkuntzen irakaskuntzarako garrantzitsuak diren hezkuntza-jardura tipikoak identifikatzeko, ikasleen eta irakasle hasiberrien jarduteko moduak ezagutzeko eta baita horien aldaerak ere eta ondorioz irakaskuntzaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

Formaziorako plataforma ugari, eremu frankofonoan

Mundu frankofonoan sekulako garrantzia ematen zaio jardueraren bitarteko ikaskuntzari. Irakaslearen lana jartzen dute erdigunean; hala ere, azpimarratzen dute lanak bere barnean ez duela “berez” apendizgorik sortzen eta irakasle hasiberriak laguntza behar duela lanean hasten denean. Hartara, “ofizioan sartzean” deritzonek etapan laguntzeko dispositibo berriak beharko direla argudiatzen dute. Formaziorako plataforma oso interesgarriak daude sarean (*neopass@ction*, Frantzian eta *Zoom*, Quebecen) irakasle hasiberriak prestatzeko nahiz etengabeko prestakuntzarako. Hasiberriak egindako lan saioak grabatuz eta aztertuz dihardute zailtasun bereziak dituzten egoera ohikoak behatuz eta hobekuntzak asmatuz. Eta bada jada plataforma horien erabilera eta eragina aztertzen duenik ere (www.ens-lyon.fr/chaire-unesco-formation).

Lana bera izanik jardura formazionala, unibertsitate garaian eskolatan egiten diren praktikek ere sekulako garrantzia hartzen dute. Frantzian eta Suitzan, esaterako, ikasleek eskolatan praktikak egiten dituztenean bi prestatzailearen laguntza dute: ikastetxean harrera egiten dien irakaslea eta unibertsitateko prestatzailea; biak batera aritzen dira irakasle-gaia bere hastapenetan laguntzen: zailtasunak aztertzen, lorpenak bultzatzen. Lan hori egiteko, irakasle-tutoreek formazio berezia jasotzen dute.



Probatzen duenak, gustuko du

Hiprest sortu berria den arren, ari da bidea egiten eta fruituak ematen. Taldekideak jakitun dira irakasleen formaziorako eurek prestatutako metodologiak badituela arriskuak, baina aldi berean baita sekulako potentzialitatea ere: “Kulturalki, ebaluatuak izan garenean, ‘oso gaizki’, ‘oso ongi’ terminoekin baloratu gaituzte. Beraz, uste dut hasieran irakasleek beldur hori izaten dutela, ‘nire burua grabatuko dut eta esango didate hau oso ondo eta hau oso gaizki’ eta dikotomia hori apurtzea oso zaila bada ere, iruditzen zait lortzen ari garela. Eskola batzuek formaziorako proposamen berri hori onartzen dute, egi-

ten dute eta gero oso ondo baloratzen dute, nahiz eta izugarritzko esfortzua izan”, azaldu du Sainzek.

Hiprestekokideen aburuz, irakasle profesionalak jakin behar du bere jardueraren aurrean jartzen eta begiratzen, norbere buruari begiratzen eta hobetze bidean jartzen, baina, batez ere, besteei, ingurukoei, ikasleei erreparatzen jakin behar du.

Praktika-aldia egiten ari diren irakasleekin nahiz irakasle hasiberriekin dagoeneko praktikara eraman dute metodologia hau, eta adituek azaldu dutenez, irakasle hasiberrien esanetan behin eta berriro ageri da, bideoa ikustean jabetu direla jardue-

raren hainbat alderdirekin: hitza eskatzen ari zen ikaslea ez ikusi izana; ikasle batzuei ia kasurik ez egina; hitz jariora uste baino azkarragoa izana, etab. “Azken batean, prestatzailearen laguntzaz, irakasle hasiberriak parte hartu dueneko jardueraren alderdi ugariz ohartu behar du. Grabaketak erakusten du baita ere gure buruaz dugun irudia ez datorrela bat egin dugunarekin. Metodologia honek jardueraren hainbat ekintza berri ikustea posible egiten du; bestetik, jardueraren egin dagoenez, egileak geroalditik hitz egin dezake iraganaz. Hau da ekintzari zentzua berremateko momentu aproposena. Laburbilduz

Eztabaida sozio-zientifikoan oinarritzen da grabazioen gaineko hausnarketa

Irakasleen formaziorako Hiprestek proposatutako metodologian eztabaida erabiltzen da erreferentzia intelektual, linguistiko eta enpiriko gisara. Elkarrizketan oinarritutako eztabaida filosofikoa da. Eztabaida mota hori begirada partzialetik (bai/ez; ondo/gaizki) haratago doa eta egia zabalagoa eta integratzaileagoa aurkitzen saiatzen da. MUKO MIKER taldea ari da bereziki teoria hau lantzen.

Sainzek gogoratzen duten moduan, ezin da ahaztu gure gizarte globalizatuak dituen erronkei behar bezala erantzuteko gizabanako kritikoak eta ondo prestatuak behar direla, bizi dugun egoera konplexuari erantzun egokiak emango bazaizkio, eskolak hiritar kritikoak sortu behar dituela, etorkizuneko gizarteko egoera berriei erantzuteko gai izango direnak.

Zentzu horretan, argumentazioaren didaktika edo eztabaida komunikabideetan ohikoa den eztabaidatik alden du beharko litzateke, eredu horretan garrantzitsuena norgehiagoka eta bestearen ikuspuntua baliogabetzea baita. Proposatzen duten eztabaida sozio-zientifikoaren xedea da partaide guztien artean aurrera egitea aztertzen den gaia lantzeko.

Eztabaida lehiakorraren eta kolaboratiboaren artean bereizten dute, bigarrenaren alde eginaz. Horretarako beharrezkoa da besteei entzutea eta solaskideak esan duena kontuan hartuz aurrera egitea, hau da, bestearen ikuspegitik abiatuta espazio komunak eraikitzea. Eztabaida mota hori da beraz, bideoz grabatutako saioen azterketa eta lanketa egiteko Hiprestek proposatutakoa.

esango dugu jarduera barnetik eta ondoren ekite egoeratik at behatzea dela prestaketarako aproposa den lehen mugimendua”.

Metodologia honekin, bestalde, Sainzek, Ruiz Bikandik eta Plazaolak diotenaren arabera, ataza eta lan errearen artean dagoen haustura agerian geratzen da, hau da, grabazioan euren burua ikustean, irakasle asko harritu egiten dira beste era batera aritzen direla uste dutelako eta ez datozelako bat ustez berak egindako papera eta grabaketan ageri zaiona: “Egitasmotik lan errealeran egon den tarteaz ohartzeak, mugimendu berria eragiten die irakasle hasiberriei. Esan dezakegu esperientziaren ondarea biderkatu egiten duela, garapen profesionalaren gakoa dela”.

Horrez gain, unibertsitateko irakasleek azaldu bezala, hizketaren ezaugarriek ere maiz harritzen dituzte irakasleak euren burua hizketan ikus-entzuten dutenean. Euren aburuz irakasleen hizkerak garrantzia handia du hizkuntzen irakaskuntzan, aspalditik hizkuntzen didaktikak defendatzen duen moduan: “Saioen grabaketaren gainean lan egitea hizkuntza-irakasleentzako tresna bikaina dela probatu ahal izan dugu”.

Orain artean egin dituzten probetan ikusi dute irakasle hasiberrien saioak bideoz jasotzea eta horien aurrean jarduera aztertzea prestakuntzarako oso baliagarria izan daitekeela, eta hasiberriek practicumaren bidez jasotako esperientzia indartu eta sendotu egiten dela.

Unibertsitateko irakasleen ustez, argi dago hizkuntzaren irakaskuntza ez dela metodo hauekin hobetu daitekeen bakarra, irakaskuntza materia oro eta pedagogiaren hainbat alderdi lantzeko balio dezakeela, eta irakasle hasiberriaren prestatze-prozesuan jarraitzeak hainbat ezagutza aditzera emango lituzkeela, aditu bihurtzearen klabeak ikusarazten lagunduz.

Orain arteko urratsekin jarraitzeak erakundeen “benetako partaide-tza” aldarrikatzen dute Sainzek, Ruiz Bikandik eta Plazaolak, eskolekin, eta batik bat, bertako tutoreekin. “Irakasleen prestakuntzak badu bere aurrean erronka ugari, gizartearen hobekuntzarako bide nagusia dugunez, horretarako egingo diren ahaleginek benetan merezi dutela uste dugu”.

arantza zugazagasti



ELKARRIZKETA

SANTO TOMAS LIZEOKO IRAKASLE OHIA

“Ilusioz betetako irakasleak behar ditugu, empatia handia dutenak eta beti prestatzen ari direnak”

1975. urteko iraila. Hiru urteko 35 haur, denak negarrez eta bera bakarrik. Programarik ez eta esperientziarik ere ez. Horrelaxe abiatu zuen Arantza Zugazagastik haur-eskolako ibilbidea: “Balio ez zuen eredu batetik gentozen, eta dena zegoen egiteko”. Geroztik, Haur Hezkuntzan aritu da nagusiki. Hizkuntzen irakaskuntzan espezializatu da, eta Eleanitz English eta Ahozkotasuna Lantzen proiektuetan jardun du, baita materialgintzan eta irakasleen prestakuntzan ere: “Irakaskuntzaren muina haurra da, eta irakaskuntza hori aurrera eramateko bi zutabe nagusi daude: materiala eta irakasleak. Irakasleok prestakuntza gehiago behar dugu”. Joan den uztailean hartu zuen erretiroa ikastolatik, baina hezkuntza-munduarekin lotuta jarraitzeko asmo osoa du.



Duela gutxi hartu duzu erretiroa. Atzera begira jartzeak ematen dizun ikuspegitik, nolako bilakaera izan du Haur Hezkuntzak hasi zinenetik hona?

Bilakaera izugarria izan da. Beharrak eraginda sortu zen Haur Hezkuntza ikastoletan: gero eta haur erdaldun gehiago genituen geletan, eta horri erantzun egin behar zitzaion, haur horiek euskalduntzea genuen helburu. Orain, ikuspegi zabalagoa dugu, eskolaurrera haurrak ez datoz euskara edo hizkuntza ikastera bakarrik, baizik eta heztera. Heziketa oso izaten dugu kontuan, eta badakigu heziketa hori ez dela 3 edo 2 urterekin hasten, baizik eta haurra jaiotzen den unetik hasten dela, gu heziketa horren zati bat besterik ez garela, eta zati horretan familiarekin batera egin behar dugula lan.

Nola irakasten zen lehen eta nola irakasten da gaur? Nola aldatu da irakaskuntza?

Gu hasi ginenean, ez genekien garbi zer erakutsi behar genuen. Ez zegoen programarik. Intuizioz erakusten genuen, edo albokoak egiten zuena ikusiz. Lehen urtean, 35 haurrekin gela batean jarri nindutenean, nik ez nekien zer egin behar nuen. Aldamenean banuen irakasle bat, eta esaten zidan: “Aizu, hartu zure haurrak, etorri nire gelara eta

ikusitakoak erakutsi nik zer egiten dudan”. Eta hala, bata bestearengandik ikasiz joan ginen.

Irakasle-eskolan ikasitakoak ere ez zigun balio ikastolan lan egiteko. Nik Donostiako eskola batean egin nituen praktikak, eta astelehenetan, goizeko bederatzietan, “Cara al sol” kantatzen genuen. Gela barruan egiten zena ere horrekin bat zetorren. Eskola frankista batean ikasi nuen, eta eskola frankista batean egin nituen praktikak. Horregatik, unibertsitateko ikasketak bukatu eta ikastolan lanean hastea talka handia izan zen, aldaketa izugarria. Ez zigun balio ikasitakoak, balio ez zuen eredu batetik gentozen, eta dena zegoen egiteko.

Gaur egun, dena askoz ere planifikatuago dago. Badakigu gelan zer egin behar dugun, baina nire ustez garrantzitsuenak ez da zer egiten dugun, baizik eta nola egiten dugun. Hor dago gakoa, egiten dugun hori ondo edo gaizki egitean.

Zein izan da aurrerapausorik nabarmenena lanean jardun duzun urte horietan gutzietan?

Haurrari bere tokia ematen saiatu gara. Ez dakit beti asmatu dugun, baina argi dugu irakaskuntzaren muina haurra dela eta haur horri bidea egiten lagundu behar diogula. Irakasleok oso ohituta gaude gu aurretik joaten, guk egiten, guk esaten... Baina erdigunean haurra dago, eta haurrak berak egin behar du bidea. Gu laguntzeko gaude. Haurra bera da bere ikasketa-prozesuaren arduraduna.

Ba al da lehengo hartatik berreskuratuko zenukeen zerbait?

Ilusioa eta proiektu berriak aurrera ateratzeko ausardia, baita familien eta eskolaren arteko elkarlana eta gurasoen parte-hartzea ere. Garai batean oso gertutik lan egiten genuen ikastolak eta familiak. Gura-

arantza zugazagasti

E

“ Haurra da bere ikasteko prozesuaren protagonista, eta haurrari ikaste prozesu horretan aurrera egiten laguntzea da gure lana ”

“ Garrantzitsuena ez da zer egiten dugun, baizik eta nola egiten dugun ”

soak asko inplikatzeko ziren, eta proiektu guztietan zuzenean parte hartzen zuten: dirua ateratzen, ikastola garbitzen, irakasleekin gauzak planifikatzen, txangoetan umeak zaintzen..., denetik egiten genuen gurasoekin, gertuko harremanak genuen, itsasontzi berean gindoazen denok. Orain, familia dezente aldentu da, irakaskuntzaren eremua eskolaren esku utzi da, eta hori atzerapausoa da, familiek ere hori egon behar dute. Elkarrekin lan egin behar dugu.

Materialgintzan ere jarduna zara. Hasierako hutsunea betez joan zarete. Zein da gaur egungo errealitatea?

Guk Urtxintxa erabiltzen dugu, eta nik uste dut Haur Hezkuntzan, gaur egun, material ona daukagula: globalizatua, proiektuetan oinarritua, ipuina ardatz duena..., oso material egokia da, baina nire iritziz materiala ez da garrantzitsuena, baizik eta material horrekin zer egiten den. Eskuarlean munduko materialik onena izanda ere, gero material hori gaizki erabiliz gero oso emaitza kaxkarrak lortuko dira. Eta alderantziz, ezagutzen ditugu kasuak, adibidez Finlandiakoa, itxura batean material tradizionalarekin ere oso emaitza onak lortzen dituztenak. Beraz, material horren erabilpenean dago gaikoa.

Eta nola erabili behar da material hori?

Material hori erabiltzeko orduan, oso kontuan izan behar da haurra, eta, horretarako, irakasleak trebatu behar ditugu. Haurra da irakaskuntzaren muina, eta irakaskuntza hori aurrera eramateko bi zutabe nagusi daude: materiala eta irakasleak. Irakasleok prestakuntza handiagoa behar dugu. Hizkuntzen irakaskuntzan behintzat, unibertsitatek atera berriek teoria ona dute, baina prak-

tikarik ez. Teoria asko ikasten dituzte, baina gero ez dakite teoria horiek nola aplikatu.

Hizkuntzen irakaskuntzan ibili zara nagusiki. Hasi zinenetik, zein metodologia erabili dituzu?

Hizkuntzak oso beste era batera irakasten ziren lehen, estrukturalki edo formalki. Gaur egun, komunikazioan oinarritutako metodologia erabiltzen dugu. Hizkuntzen jabe-kuntzaren inguruan ikerketa asko egin dira, eta horiek denak oso baliagarriak zaizkigu gure lanerako. Modak ere bizi izan ditugu: orain oso ona dena hemendik urte batzuetara baztertu egiten da. Hala ere, *metodo* hitza ez zait gustatzen. Uste dut metodologia guztiek dutela zer-bait aprobetxagarria, eta denetik ikasi behar dela. Afrikan esaten den moduan, komunitate osoa behar bada haur bat hezteko, guk ere baliagarria den guztia erabili behar dugu hizkuntzak irakasteko.

Helburua da haurra hizkuntzaz ondo jabetzea. Edozertarako behar dugun tresna da hizkuntza, zeharkakoa. Fisika ikasten ari bagara ere, hizkuntza behar dugu. Fisikako irakasleak, fisika irakasteaz gain, hizkuntza ere irakasten du. Hizkuntza ondo ikasi behar da denerako, ez bakarrik gero ikasten jarraitzeko, baita gaurko munduan aurrera egiteko ere. Joxerra Gartzia dioenez, hizketan taxuz ez dakienak arrakasta izateko aukera eskasa du gaurko munduan. Kontuan izan behar dugu, gainera, hizkuntza eta pentsamendua lotuta daudela, ez dagoela bat besterik gabe. Hizkuntza da garapenerako tresna nagusia; beraz, gure lana ondo betetzea besterik ez zaigu geratzen.

Artigalen metodoan oinarritutako Eleanitz English eta Ahozkotatuna Lantzen proiektuetan ibili zara.

Orain dela 21 urte, Josep Maria

Artigal etorri zen guregana, ipuintxo batzuk hartuta ingelesa nola irakasten zuen azaltzera. Pentsatzen nuen lau urteko hurrekin gelan abesti batzuk eta hiztegi pixka bat irakasten hastea nahikoa izango zela, eta sekulako sorpresa hartu nuen hasiera-hasieratik ingelesa bakarrik erabili behar zela esan zidatenean. Nola ulertuko zidaten hurrek, ingelesik ez bazekiten? Eta are sorpresa handiagoa hartu nuen Artigal hurrekin gelan sartu eta metodologiak funtzionatzen zuela ikusi nuenean. Orduz geroztik, urte askoan ingelesko irakasle aritu naiz, baita ingelesko irakasleak prestatzen ere. Izugarri ikasi dut, hori izan da nire benetako unibertsitatea. Metodologia komunikatiboa da, ipuina oinarri duena, ipuina oso zubi egokia baita umeengana iristeko.

Geroago, ingelesa irakasteko erabiltzen genuen metodo horretan oinarritu ginen euskara eta ahozko-tasuna lantzen hasteko. Konturatzeko ginen A, B eta D ereduak jarri zirenetik ez zela asko aldatu euskara ikasteko metodologia, eta Ahozko-tasuna lantzen proiektuarekin hastea erabaki genuen. 2006-2007 ikasturtean jarri genuen abian, 9 ikastetxetako 11 irakasleekin, eta pixkanaka indarra hartzen joan da. Aurreko ikasturtean, adibidez, Euskal Herri osoko 57 ikastolatak 349 irakasle hartu zuten parte.

Metodologia komunikatiboa erabiltzen duzue hizkuntzen irakaskuntzarako. Zein da metodologia horren muina?

Hizkuntzak erabiliz ikasten dira, bizikletan ibiliz ikasten den bezala. Autoa gidatzeko saio teorikoak eta praktikakoak behar diren moduan, hizkuntza bat ikasteko ere teoria eta praktika behar da. Gu, irakasleok, oso trebeak gara saio teorikoak ematen, baina praktikotik huts gehiago egiten ditugu. Ikasleei hitz



egiteko aukera eman behar zaie. Irakasleok gehiegi hitz egiten dugu, eta ikasleek denbora gehiena entzuten ematen dute, baina entzutea ez da nahikoa hizkuntza bat ikasteko. Hitz egiten irakatsi behar zaie, eta ahozkoaren lanketa hori planifikatu egin behar da. Ikasleei hitz egiteko aukerak eskaini behar zaizkie, baina ez hori bakarrik, aukera horien kalitatean dago gakoa. Aukera asko eta era guztietakoak behar dira: haurren interesa piztuko dutenak, hurrek dakitenean oinarrituko direnak, pentsaraziko dietenak, euren arteko komunikazioa bultzatuko dutenak, eroso sentiaraziko diete-

nak eta ondo pasatzeko aukera eskainiko dietenak.

Egia da hizkuntza erabiliz ikasten dela, baina horrekin ez da nahikoa, erabilerari erabileraren beraren gaineko hausnarketa gehitu behar zaio. Gainera, kontuan izan behar dugu oso ordu mugatuak ditugula lan hori egiteko. Horregatik, ditugun ordu horiei txinpartak atera behar dizkiegu. Beraz, gure egitekoa jarduera interesgarriak proposatzea da, haurrak pentsa dezan, gelakideek esandakoa entzuten ikas dezan, eztabaidatzeko gai izan dadin, erabakiak har ditzan, etab. Jarduera horietan guztietan irakaslea

arantza zugazagasti

E

“Ikasleei hitz egiteko aukera eman behar zaie; irakasleok gehiegi hitz egiten dugu eta ikasleek denbora gehiena entzuten ematen dute”

“Ipuinaren bidez haurrari ingurua ezagutzeko aukera ematen zaio eta beraz nola antolatuta dagoen ikasten du”



alboan izan behar du haurrak, lagundu egin behar zaio, eta eredu egokiak eskaini.

Hori guztia egiteko tresna hizkuntza izango da. Eta irakasleak hizkuntza pakete txikietan eskaini behar du, lana erraztu egin behar du. Janaria prestatzen den bezalaxe, prestatuta eman behar zaio hizkuntza haurrari, bestela irentsi ezina gertatuko zaio.

Ahokotasunari garrantzi handia ematen diozue. Nola planifikatzen duzue ahokotasunaren lanketa? Zein dira ahokotasunaren didaktikan jarraitzen dituzuen irizpide nagusiak?

Gure metodologia komunikazioan oinarrituta dago, eta haurrei komunikatzen irakatsi behar diegu. Ez dugu ergatiboa, lehen aldia eta baldintzazko aditzik irakatsi beharrik hizketan hasteko. Gure haurrek hasiera-hasieratik hitz egiten dute, eta zer esaten ari diren jakinez, gainera. Horretan oinarritzen da gure planifikazioa, ez horrenbeste “zer” irakatsi behar dugun, baizik eta “nola”. “Zer” hori komunikatzea izango da.

Hiru urteko hurrekin hasten garenean, ipuina izaten da gure abiapuntua, haurrengana iristeko bide zuzena delako. Beraz, ipuinak nola landu planifikatu behar dugu, egu-

neroko egoerak nola landu, elkarriketak nola landu, fitxak egiteko modua nola landu, hori da garrantzitsua, "nola" hori.

Gainera, beste akats bat egiteko joera ere badugu: hizkuntzak erabilerara asko ditu, eta irakasleok pentsatzen dugu erabilerara bat erakutsita, txapel horrekin buru guztiak estal ditzakegula. Adibidez, haurrei ipuina nola kontatu irakasten badiegu, gero ezin diegu eskatu txiste bat kontatzeko edo gauza teoriko bat azaltzeko. Haurrek, pixkanaka, erabilerara bakoitza landu behar dute.

Ipuinetan oinarritzen zarete hizkuntzen irakaskuntzarako. Zer funtzio betetzen du ipuinak?

Ipuinaren bidez, haurrari ingurua ezagutzeko aukera eskaintzen zaio, eta berori nola antolatuta dagoen ikasten du. Benetako egoerak eta fantasiazkoak tartekatuz, mundua nola antolatuta dagoen erakusten zaio. Gainera, ipuina haurrengana iristeko bide ezin hobea da, eta horretaz baliatzen gara.

Ipuina oinarri hartuta, hurrena garrantzitsuena zera da: ipuin hori nola inguratzen den. Hasieratik, ipuina antzeztu egiten dugu, antzezpene kolektiboan izaten da. Hala, lehen egunetik haurrak ipuina bizi egiten du, eta kontatzen hasten da, irakaslearen laguntzarekin. Hor garrantzi handia dute mimikak edota ahotsen aldaketek, baina baita lekuak nahiz tempoak ere. Antzezpene denek batera egitea ere inportantea da. Begirada ere zaindu behar da. Haurrei begiratu egin behar diezu, haurrak konturatu behar du berearekin ari zarela. Haur guztiak partaide egin behar dira, eta ipuinaren barruan sartu.

Irakasleen prestakuntzan ere jardun duzu. Zer irizpide izaten dituzue kontuan?

Oso prestakuntza praktikoa egi-

ten dugu. Irakasle berriek oinarri teorikoa badute, baina unibertsitatearen hutsunea aplikazioan edo "nola" horretan dago. Beraz, gu hutsune hori betetzen saiatzen gara. Horregatik, gure prestakuntza-saioetan, oinarri teorikoa lantzeaz gain, gela batera sartzen gara, eta esaten ari garen hori praktikan jartzen dugu. Irakasle guztiak begira daudela, nik eskola ematen dut eta nola egiten den ikusten dugu. Gero, irakasleek hori bera euren ikastolan egiten dute, eta saioa grabatzen dute, gainera. Ondoren, ikusten dute zer egin duten ondo eta zer daukaten hobetzeko, eta hurrengo saioan denon artean komentatzen dugu.

Nolako irakasleak behar ditugu?

Irakasleak ondo komunikatzen jakin behar du, eta hurrengandik gertu egoten. Uste dut berezko sen apur bat ere behar dela, baina horrekin ez da nahikoa, ikasteko prest egon behar du. Irakasle ona ez da jaiotzen, ikasi egiten da irakasle ona izaten.

Ilusioz betetako irakasleak behar ditugu, enpatia handia dutenak

eta beti prestatzen ari direnak; izan ere, ez dugu inoiz ikasten bukatzen. Gainera, irekitasun handia izan behar du irakasleak. Kontuan izan behar dugu orain gure artean ditugun haurrak 2060. urtean lanean ariko direla gaur egun existitzen ez diren lanbideetan. Beraz, irakasleak ere etengabe egoera berrietara egokitu behar du, eta erronka berriei aurre egin behar die.

Zu lanean horrenbeste urtez aritu zaren eskola horrek nolakoa izan beharko luke? Zein erronka ditu?

Eskolak irekia izan behar du, familiaria eta gizarteari irekia, integraztailea, ikaslea oso kontuan izango duena, haurrekin harreman zuzenak eta gertukoak landuko dituenak, eta euskalduna, dudarik gabe. Proiektuak elkarlanean eramango ditu aurrera, bai irakasleen artean eta bai familiarekin batera. Helburua da pertsona zintzoak hezteak, irekiak, irizpideak dituztenak, pentsatzen dakitenak, erabakiak hartzeko gai direnak; ondoren, gure gizarteari baliotsuak izango zaizkion pertsonak prestatzea.





0-3. Hezitzaileen formazioa

Eskola eta familiaren arteko harremanak, haurren garapen osorako lagungarri:

“Familiak osasun arloan bakarrik ez badaude, zergatik utzi bakarrik hezkuntzarenean?”

“Eskola eta familiaren arteko harremanak” izeneko jardunaldiaren baitan egin zen 0-3 zikloko hezitzaileen formaziorako urriko saioa. Gaiaren inguruko sarrera egin eta marko teorikoa ezarri zuten Elena Lopez de Arana eta Alexander Barandiaran Mondragon Unibertsitateko irakasleek eta Huhezi fakultateko Hazitegi ikertaldeko kideek. Urie Bronfenbrenner-en erreferentziatik abiatuta, umearen garapen sistemaz hitz egin zuten, irakasle bien esanetan, garrantzitsuena pertsona nola garatzen den baita, hau da, pertsona sistemen eraginpean dago eta eragin horien arabera garatzen da. Lau sistema mota deskribatu zituzten: mikrosistema, mesosistema, exosistema eta makrosistema.

Sistemaren erdian munduarekin harremanak izateko gaitasunak dituen umea dagoela azalduz hasi zuten hitzaldia Barandiaranek, eta gaitasun horiek garatzea sistema bateko edo beste helduen esku dagoela. Lehendabiziko harremanak familiarekin izango ditu haurrak, eta

bigarrenik, eskolarekin. Beraz, horiek biak mikrosistemaren parte dira, haurrak gertuen dituen helduekin eratzten dituen erlazioei egiten baitie erreferentzia mikrosistemak: “Familiako pertsonak umeari ematen dioten erantzunen arabera, umeak era bateko harremana edo beste era batekoa eraikiko du. Harreman horiek umearengan eragina duten lehen harremanak dira eta bere bizitzan izango dituen harremanik esanguratsuenak. Beraz, zein da familiaren helburua eta egitekoa? Umeak dituen behar fisiko eta emozionalak asetzera eta atxikimendu segurua eraikitzea. Ikasteko baldintza da, ez du ikaskuntza-prozesurik izango baldin eta seguru sentitzen ez bada”.

Guraso batzuk, aitzitik, umearen hezkuntzari dagokionez desorientatuta eta bakarrik sentitzen dira Barandiaranen ustez. Izan ere, gurasoek informazio zabala dute, baina maiz informazio hori kontrajarria da eta hezteko moduaren inguruan

ematen zen transmisioa ere eten egin da: “Gaur egun gainera gizartearen presioa ere izugarria da, munduko onena izan behar duzu, ez da nahikoa pertsona hutsa izatearekin, izan behar zara izugarria”. Beraz, Lopez de Aranak gaineratzen duen moduan, hainbat gurasok, zenbait funtzio betetzeko eskolarengan delegatzen dute, hezitzaileak direlako profesionalak eta haien daukatelako jakintza: “Desorientatuta daudela diogunean ez dugu esan nahi gaizki egiten dutenik. Bakarrik esaten dugu zalantza askorekin egiten dutela egiten duten hori, eta gainera eurek badakite lehen urteak oinarritzkoak direla haurren garapen egokirako. Beraz, gainean zama handia sentitzen dute askok eta hori arintzeko eskolarekin partekatzen dute euren ardura, horrek lasaitasuna ematen die-eta”.

Familiaren atzetik, beraz, haurren hurrengo mikrosistema eskola da. Umeen arteko erlazioak eraikitzeaz gain, umearen eta hezitzaileen arteko harremanak eraikitzen



dira bertan. Barandiaranen esanetan, familiako helduekin gertatu bezala, eskolako hezitzaileek umeei ematen dieten erantzunaren arabera umek eraikiko dute harreman mota bat edo beste euren erreferentziatzako bigarren irudi horrekin: “Atxikimendu segurua lortzea ezinbestekoa da eskolaren kasuan ere. Batzuek hori etxetik ekartzen dute. Ez dakartenen kasuan, ordea, funtzio konpentsatzaile hori bete behar du eskolak. Hori horrela dela bermatzeko bi irizpide izango ditugu kontuan: bat, umea besteekin harremanetan dago lotura positiboak eginez; bi, umeak esploratzen du. Zantzu horiek ageri ez baditu, akaso, garapenean blokeoren bat izan dezake eta horrek ziurrenik familiarekin izango du zerikusia”.

Kasu horietan eskolak paper garantzitsua jokatzen duela dio Barandiaranek, eta komunitateko familien gurasotasun osasuntsua bultzatuko duten testuinguruak eraiki beharko lituzkeela uste du. Vicenç

Arnaizen hausnarketa bat ekartzen du gogora: “Familiak osasun arloan bakarrik ez badaude, zergatik utziko ditugu bakarrik hezkuntzarekin erlazionatutako gaietan? Eskola batek gurasoen topagune edo foroak sortuko balitu, zer emango lieke familiei?”. Hasteko eta behin konpententzia sentimendua eta autoestimua areagotzea ekarriko luke Barandiaran aburuz, gurasoek ere antzeko kezkek izaten baitituzte: guraso ona naiz? Ondo egiten dut? Eta nola dakit ondo egiten dudala? “Hori guztia partekatu ahal izatea oso aberasgarria litzateke familientzat. Familiak badaki bere egitekoa dela umearen hezkuntza, baina hori partekatzea eta komunitateko partaide sentitzea inportantea litzateke”.

Mikrosistemen arteko harremanek osatzen dute mesosistema, hau da, eskolak eta familiak dituzten harremanak lirateke. Lopez de Aranak adierazi bezala, harreman horietan umeak ez du zuzenean parte hartzen, baina harreman horiek umea-

rengan eragina dute. Gauza berbera gertatzen da exosistemarekin (adibidez, gurasoen lanbidea) eta makrosistemarekin (esate baterako, hezkuntza sistema) ere, hainbat erabaki hartzen dira eremu horietan, umeak ez du parterik hartzen, baina umeari zuzenean eragiten diote.

Funtsean, eskolak eta familiak helburu berbera dutela dio Lopez de Aranak, umearen ongizatea eta garapena, hain zuzen: “Helburu bera dutenez hainbat funtzio partekatzen dituzte. Testuinguru bietan dauden helduen betebeharra da umeen atxikimendu segurua. Hori umearen zaintzaren eta babesaren bidez egiten da”. Xede bera dutenez, bestalde, eskolak familia babestu behar duela uste du eta alderantziz, biak elkar ulertze behartuta daudela, gainontzean ez delako modurik egongo umearen garapena eta ongizatea ziurtatzeko. “Eskolaren eta familiaren ikuspegia berbera ez izatea, gai-

nera, ez da kaltegarria umearentzat. Testuinguruaren artean ezberdintasunak badaude, umeak gaitasun ezberdinak abian jartzeko eta bere burua askoz hobeto ezagutzeko aukera izan dezake. Askotan, ordea, familiei eskolaren ikuspegi berbera izateko eskatzen diegu, eta ez gara konturatzen eskaera hori mugatzaileria izan daitekeenik”.

Sarritan, eskolaren eta familiaren arteko harreman horrek ez duela ez alde bat ez bestea asebetetzen dio Lopez de Aranak, eskolatik gurasoei inplikatzeko eskatzen bazaie ere abiapuntuko xedea eskolaren beharrek asebetzea dela: “Familiekin ha-

rremanak izaten ditugu horrek erraztasunak ematen dizkigulako umea ulertzeko eta eskolako bizi-moduan kokatzeko. Eta familiekin eratzen ditugun harreman horietan hartu bakarrik egiten dugu, edo eman gutxi edo ematen duguna ez dator bat familiekin eskatzen duten horrekin”.

Beraz, egoera horren aurrean, familia zein eskolaren asebetetzea helburu hartuta, hauxe da Mondragon Unibertsitateko irakasleek egiten duten proposamena: eskolak bere ateak zabaltzea eta komunitatean dauden maila guztiei zuzenduriko elkargune testuinguruak era-

tzea, gurasotasuna lantzeko: “Ez dugu irudikatzen formazio moduan, baizik eta esperientzia gisara. Eskolak gurasotasunaz hitz egiteko espazioak eratzen baditu, prebentzioan eragiten ariko da. Kontuan izan behar dugu familia guztietan arazoak egon direla, daudela edo egon daitezkeela eta horregatik gonbitea guztiei zabaldu behar diegu. Orain zailtasunak eduki ez arren, etorkizun batean izan ditzakete. Prebentzio horrek gizarte osasuntsuagoa eraikitzen lagunduko liguke. Umearen ongizatea ez da soilik familia eta eskolaren egitekoa, baizik eta gizarte osoaren inplikazioa behar da”.

Myrtha Chokler: Harremanen garrantzia haurren garapen osorako

“Haur-eskola topagunea da, ez irakasleak planifikaturiko ekintzak egiteko lekua”

Elena Lopez de Aranak eta Alex Barandiranekek euren hitzaldiaren amaieran azaldu zuten ideia bat, hau da, elkargune-testuinguruak eratzeko premia, ekarri zuen Myrtha Choklerrek bere hitzaldira, topagunez aritu baitzen Psikologian doktore, psikomotrizista eta Pikler pedagogian aditua.

Hasteko, haurraren jarri zuen fokua Choklerrek. Nola bizi du haur txiki batek etxetik eskolara-ko esperientzia? “Haur txiki bat, Maria, Jose, Juan, Patricia... haur txiki bakoitza, zama emozional eta afektibo handiarekin munduraten da. Motxila horrekin familiaren mundutxoan bere lekua eraikitzen hasiko da, bere ekintzarekin, jakinminarekin, negarrarekin.... egunean 24 orduz lan eginez. Egun batean,



bere erabakiz ez, baizik eta familiarekin erabakiz, leku ezezagun batera eramango dute haur txiki hori”. Eskola, lehen aldiz zapaltzen duen haur batentzat zeinen arrotza den adierazi zuen Choklerrek: “Bat- ba-

tean, gauzek dirudite baina ez dira, bertako materiala ez da erreal; ordu zehatz batean, beste haur guztiekin batera egin beharko du txiza eta kaka, haur horrek behar fisiologikorik izan ez arren...”.

Familiaren eta eskolaren arteko harremanez hitz egiteko garaian, beraz, haur bakoitzak esperientzia hori nola bizi duen behatzetik eta hausnartzetik abiatzea proposatu zien Choklerrek hezitzaileei. “Haur bakoitzak ahal duen bezala bizi du esperientzia hori, bere heletze prozesuaren, eritmoaren, kompetentzien, beldurren, angustien... arabera”.

Alabaina, helduek badute egitekorik haurren esperientzia horiez dadin hain bortitza, hain gogorra, hain traumatikoa izan. Horretarako, topagunearen pedagogia

proposatu zuen Choklerrek, elkar ezagutzearen pedagogia. “Haur-eskola topagunearen lekua da, ez da irakasleak planifikaturiko ekin-tzak egiteko lekua. 10:15etatik 11:15etara margotu egin behar da, ondoren ontziz aldatuko ditugu materialak eta, azkenik, jolas libre-rako ordubete izango dute. Zergatik? Eskola erlazio berriak eraikitzen diren ingurunea da, non errealitate berri bat ezagutzen eta ikasten duen haurrak”. Choklerrek proposatzen du haurrek gauza bat edo beste ikas dezaten ekintza zehatzak planifikatu baino, irakasleak lehendabizi haur bakoitzari zer interesatzen zaion hausnartu behar duela.

Baina familia askok emaitzak ikusi nahi dituzte, margoa, eskulana..., “eta irakasleek gurasoek espero duten hori egiteko presioa sentitzen dute, beraz, irakasleak haurrei laguntzen die egunean egokituriko margoa, mozorroa edo dena delakoa egiten”. Choklerrek dio, ordea, horrek ez diola umearen beharrari erantzuten, gurasoen nahiri baizik; eta, gainera, umeak ez duela ikasten era horretan. “Haurrek ez dute ikasten egite-ra behartzen dituztenean, baizik eta ikusten dutenean, saiatzen direnean... eta helduak testuinguru egoki bat prestatzen dionean”. Horixe da, Choklerren ustez, hezitzailearen egitekoa haur-eskolan: testuinguru egokiak prestatzea haurrak, bere erritmoaren arabera, heltze prozesua aurrera eraman dezan.

Fokua haurrengandik helduarenera —irakaslea nahiz gurasoa— pasaz, Choklerrek adierazi zuen helduek haurrei buruz duten irudiak berebiziko garrantzia duela honekiko tratuan. “Haurren ze irudi daukagu? Pertsona aktibo, bi-

zi, jakinminez betearena ala estimulatu beharrezko izaki pasiboarena, gero jakin dezan guztia helduak irakatsi behar diona?”. Haurrari egiten irakasten dion hezitzailearen eta haurrari testuinguru egokiak prestatu eta inizatiba har dezan uzten dion hezitzailearen artean, bakoitzak buruan duen haur mota bereizten du Choklerrek, hau da haur aktiboa edo pasiboarena. Piklerren teoriak ekarriz, hizlariak adierazi zuen irakaspenak eta prozesuak aurreratzen zaizkionean haur bati, porrotak aurreratzen zaizkiola. “Aski heldurik ez dagoen gorputz bati irakaspenak aurreratzen badizkiogu, gaizki egingo du, eta gaizki egiten ikasiko du; ez-gauza dela sentiaraziko dugu”.

Galderaren pedagogia

Topagunearen pedagogiarekin batera, galderaren pedagogia aldarrikatu zuen. “Umeari galdetu egin behar zaio, ez agindu. Gainontzean, pasiboki helduaren agindua betetzera behartuko dugu. Baina ez dakigu zein ume dagoen osasuntsuago, sumisoki aginduak betetzen dituena edo errebelatzen dena. Pasiboki egokitzen dena gaxotu egiten da; egokitzen aktiboa, berriz, ikaskuntzarako bide da”.

Haurren garapenean atxikimendu-loturak duen garrantzia nabarmendu zuen Choklerrek, lehenago Lopez de Aranek eta Barandiaranek egin zuten bezala. Lotura horrek familiaren eta eskolaren harremanean duen garrantzia azaldu zuen: “Haurra, babestuko duen heldu horrengana lotzeko prest dator. Eta lotura horrek beldurrak, eta ezezagunarekiko tentsioak baretzen lagunduko dio. Haurra deskubritzeko irrikaz dago, baina, era berean, ezezaguna

den horrek beldurra eragiten dio. Haatik, helduak hasieratik babesa eman badio, haur horrek barrenean eramango du helduarekin izaniko esperientzia eta helduleku bat izango du ezezagunari aurre egiteko, baita beraz, haur-eskolarako urratsa egiteko ere”.

Objektu trantsizionalak edo lagungarriak —burkoa, hartzatxoa, zapiak...— lehen atxikimendu figuraren luzapena izaten dira haurrarentzat eskolako testuinguruan, karga emozionala eta afektiboa ezarri baitio haurrak etxeko elementu horri, eta ezezagun duenaren aurrean beldurra eta antsietatea lasaitzen lagunduko dio.

Haur-eskolako testuingurua errespetuzkoa eta komunikaziozkoa den kasuetan, haurra bigarren atxikimendu figura bertan aurkitzeko gai sentituko da. Baina Choklerrek zehaztu zuen komunikatzea ez dela soilik informatzea, baizik eta heldu hori prest egon behar dela haurrek —eta horien gurasoek— adierazten diotena ulertzeko.

Errespetua norabide anitzekoa izan beharko lukeela adierazi zuen Choklerrek, haurrenganako, eskolarenganako eta familiarenganako. Baina errespetua edukitzeko, derrigorrezko jo zuen elkar ezagutzea: “Inork ez du ezagutzen ez duena errespetatzen. Ezagutzen ez duguna etsai bihurtzen da, amenazu”. *Ezagutza, errespetua eta konplizitatea* elkarrekin doazen hiru berba dira Choklerrentzat. “Horrek esan nahi du elkar ezagutzeko denbora hartu behar dugula”. Konfiantza eta konplizitatea eraikitzeko, baliabideak jarri behar direla azaldu zuen: “Espazioak, tresnak eta denbora behar dugu haur-eskola hori haurrekin eta familiarekin elkartu dadin, elkar ezagutu dezaten”.

Euskal Herriko zein kanpoko hainbat esperientzia:



“Haurra familiarekin dator haur-eskolara”

“Haur bakoitza onartua sentiarazi behar dugu bere familia ereduan”, adierazi zuen Ategorritxo haur-eskolako Leire Garro irakasleak. Josune Belamendiak eta biek azaldu zuten Donostiako haur-eskolaren esperientzia. “Haurra familiarekin dator haur-eskolara, eta familiak oso diferenteak dira euren artean”. Familia eta haur bakoitzaren aniztasuna, beharrak, hizkuntza, hezkidetzak, erlijio, ohitura errespetatuz egiten dute lan, Euskal Herritik erantzunez, eta beti lantaldean. Euren giltza malgutasuna da.

‘Egokitzapena’ ala ‘ongietorri-garaia’?

Edurne Lekunberrik eta Alfredo Hoyuelosek Iruñeko udal haur eskoletako esperientzia azaldu zuten. Egokitzapen-garaian zentratu ziren hezitzailea eta dokumentatzailea. Lehen aldaketa semantikoa izan zen: haurrak egokitu baino, haur-eskolak haiei harrera egin behar diela ikusten baitute. Azken ikasturtean prozesua dokumentatu dute, hezitzaileen, haurren eta gurasoen jarrerak, emozioak eta ekintzak behatzeko eta hortik ikasteko. Bigarren aldaketa ere egin dute: orain prozesua isiltasunean egiten dute.



Banaketa, haurraren konkistaren bidez

30 urte badira atxikitako helduak eskolara ekartzen hasi zirela Antzuolan. Banaketa oso gogorra zenez, hainbat aldaketa txertatu zituzten haurrak eskolan hartzeko etapan. Horien berri eman zuten Axun Mujika eta Maria Eugenia Irazabalek. Banaketak haurraren konkista izan behar zuela konturatu zinen eta horretarako bitartekoak jarri eta gurasoen aurrean lan egin behar zutela: “Haurra errespetatzen eta ez inbaditzen saiatzen gara. Haur bakoitzak berak egin behar du bere prozesua”.

Lezioak ez, aukerak eman

Elia Martinezek ere “egokitzapen” hitza ez du gustuko, eta “familiarizatzeko-prozesua”-z dihardu. haur-eskola guztiak familiar gisa ulertzen dute Cespedes-en, bertan, gainera, gurasoak haurrekin egon daitezten espazioak dituzte. Familien aniztasunaz hitz egin zuen Martinezek, baina ez soilik jatorriari dagokionean, baizik eta egiteko moduei dagokionez ere familia bakoitzaren ohiturak errespetatzearen garrantziaz mintzatu zen. “Lezioak ematea baino, aukerak ematea garrantzitsuagoa da”.



Euskararik gabe ezin izan, ezin bizi

Ikasleen artean euskara sustatzea helburu duen 'Euskaraz Bizi' proiektuaren bidez, euskararen erabilera %95etik gorakoa izatera iritsi da Tolosako Laskorain ikastolan.

Aritz Larreta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko psikopedagogiako ikasleak eta Izarne Olanok Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak karrera amaierako proiekturako *Euskaraz Bizi* egitasmoak Tolosako Laskorain ikastolan izan duen bilakaerari buruzko ikus-entzunezko dokumentala egin dute. Laskorain ikastolako ikasle ohiak dira biak, eta Larreta uneotan bertako irakasle ere bai.

Euskaraz Bizi proiektuaren inguruan ibilitako hainbat aditu, irakasle, guraso, ikasle eta teknikariren testigantzekin osatu dute dokumentala. Euskararen sustapenerako Laskorain ikastolan egin den lana bildu eta proiektuaren eraginkortasunaren gaikoak agerian jartzeaz gain, beste ikas-tetxei hizkuntza-normalizazioan esku hartzeko ideiak eskaintzea du xede dokumentalak. Horrez aparte, Laskorain ikastolako hezkuntza-komunitate osoa txalotu eta animatu nahi izan dute Larreta eta Olanok, orain arte bezala, aurrerantzean ere, hizkuntza-normalizazioan eragiten jarrai dezaten: "Benetako protagonistei lekua egin eta hitza eman nahi izan diegu, eta egin duten lana aitortu eta goraiatu".

Larretak azaldu digun moduan, Laskorain ikastola 1967an sortu zen euskarazko irakaskuntza eskaintzeko, euskarari eta Euskal Herriari begirako ikastola nahi baitzuten Tolosako



hainbat guraso euskaltzalek. "Euskarazko ikastola sortu zen eta gela barruan euskaraz egiten zen, baina ikusi zen, handik kanpo, gaztelaniara jotzeko ohitura handia zegoela, euskaraz ikastea ez zela nahikoa euskaraz bizitzeko. Gelaz kanpo, % 40k soilik

erabiltzen zuten euskara. Zerbait egin beharra zegoen".

1985. urte inguruan, egun batez, Emeterio Zaldibia Laskorain ikastolako irakaslea Lizarrara joan eta erabat harrিতa geratu zen umeak euskaraz entzunda: "Tolosan ez, eta hemen Li-

zarran bai, nola liteke?”, eta jakin zuen Jose Luis Gorostidik *Euskaraz Bizi* proiektua sortu zuela, konduktismoan oinarrituta, sari eta errefortzu bidez, ikasleen artean euskara sustatzeko. Dokumentalean ageri denez, handik ideia hartuta, 1986-1987 ikasturtean, Emeterio Zaldibia zuzendaritzara iritsi zenean, *Euskaraz Bizi* proiektua martxan jarri zuen Laskorain ikastolan. Hasieran, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta, gero, goragoko mailetan. Helburua zen euskararen erabilera bultzatzea, baina ez ikastolan soilik, baita hortik kanpo ere, era naturalean ikasleek euskararen aldeko hautua egin zezaten. Halaxe azaltzen du Zaldibiak berak dokumentalean: “Nik proiektu hau ezagutu nuenerako Lizarran bost bat urte martxan zeramatzen. Eta denbora horretan izugarritzko aldaketa egin zuen Lizarrako ikastolak. Ni txundituta sentitzen nintzen han umeek euskaraz egiten zutelako”.

Zer da ‘Euskaraz Bizi’?

Larretaren hitzetan, *Euskaraz Bizi* euskararen erabilera bultzatzea helburu duen eskola esparruko egitasmoa da. 1980an sortu zuen Lizarran Jose Luis Gorostidi zenak, ikasleen euskararen erabilera bultzatu nahian. Hasieran, lau ikastola soilik sartu ziren proiektuan: Lizarra ikastola, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastola, Gasteizko Toki Eder ikastola eta Laskorain bera. “1991tik aurrera, berriz, proiektua Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren esku geratu zen eta ikastola gehiagotara zabaldu zen. 2000. urtean Ikastolen Elkarteko *Eleanitz* eta *Euskaraz Bizi* proiektuak marko bakar batera ekarri ziren: Ikastolen Hizkuntza Proiektua. Hala ere, *Euskaraz Bizi* proiektuak bere bidea jarraitu zuen eta era askotako korrante teorikoe-tatik edanaz uneko errealiterata egokituz joan zen. 2006an *Euskaraz Bizi* proiektuaren lan proposamena gaurkotu zen, ikuspegi eklektikotik”.



Nola txertatu zen Laskorain Ikastolan?

Bideoan aipatzen den eran, Emeterio Zaldibiak Lizarrako eredia aurkeztu zien Laskorain ikastolako irakasleei eta euskara bultzatzeko ekimen baten beharraz kontzientzia piztu zien. Hala, esku-hartze plan jakin bat diseinatu zen irakasle, ikasle eta gurasoei begira. Honela gogoratzen dute irakasleek garai hura: “Ikusita gure ikastolan zein zen errealitatea, Emeteriok bere egin zuen Lizarrako egitasmoa”; “Lizarran posible baldin bazen, Tolosan zergatik ez? Proba behintzat egin beharra zegoen”; “Emeteriok Lizarrako eredia ekarri zigunean kontzientziatu egin gintuen aurrera atera behar zela proiektu hori”; “Gogoratzen naiz klaustroetan eta hasi zitzaigula esaten bere kontentzimendu osoz beste molde bateko esku-hartzea hasi behar genuela”.

Argitxo pertsonaia mitikoa

Lehen-lehenik Argitxo pertsonaia sortu zuten, euskararen ikurra. Panpina bat zen eta txotxongilo erara erabiltzen zuten. Ume txikiak pertsonaia magiko bilakatu zen: “Argitxo oso txikia zela eta edozein txokotan gordetzen zela esaten zitzaien, eta ho-

rregatik, haurrek egiten zuten guztia ikusi eta esaten zuten guztia entzuten zuela. Berarentzat oso inportantea zela lagunartea eta euskara bakarrik ulertzen zuela eta besteei entzutean haiek esaten zutena arrotz bazitzaion eta entenditzen ez bazuen oso triste jartzen zela. Beraz, umeek euskaraz egiten zuten Argitxo pozik egon zedin”, hala kontatzen du irakasle batek dokumentalean.

Bideoaren egileen hitzetan, aurreneko momentutik euskararekin eta oro har haurren bizitza osoarekin loturik aurkeztu da Argitxo eta haurtzaro guztian zehar irauten duen erlazio berezi bat sortzen da haurraren eta panpinaren artean.

Kanpainak

Proiektuaren baitan, euskara bultzatzeko kanpaina zehatzak ere egin izan direla azaldu digute Larreta eta Olanok, bai irakasleei begira, bai familiei begira eta baita kalera begira ere: “Kanpainak beti ludikoak izaten dira, euskaraz egiteak saria izan dezala, pozgarria izan dadila, ez karga bat gehiago”.

Dokumentalean ageri diren irakasleek nahiz ikasle ohiek gogoratzen duten moduan, gela barrura be-

girako kanpainetan egiten zen ekin-tzetako bat partxis antzeko joko bat zen. Taula baten bidez, ikasleek egu-nero azertu behar zuten nola hitz egi-ten zuten, euskaraz eginez gero, egu-naren amaieran berdez margotzen zuten taulan, norbaitek erdararaz zer-bait esaten bazuen, gorriz. Berdez zeuzkanak saria izaten zuen.

Bigarren Hezkuntzan, berriz, Eus-kara Elkartea sortu zen euskara bul-tzatzeko. Hala adierazi dute Larretak eta Olanok: "Adin batetik aurrera, ikasleak ekintza eta konpromisoaren bidez motibatzen dira batez ere. Hel-buru nagusia hauxe litzateke: ikasle multzo ahalik eta handiena euskara-rekin konprometitzea eta bere maila-ko ikastola ordu barruko eta kanpoko ekintzen ardura bere gain hartzea".

Festak eta ospakizunak

Dokumentaleko testigantzetan aipatzen den eran, helburua zen, mo-du positiboan era bat bilatzea haurrak euskaraz egiteko beharra senti zezan. Larretaren hitzetan, *Euskaraz Bizi* betidanik saiatu da bizitzaren arlo lu-dikoa euskararekin elkartzen eta bide hori jarraituz, antolatzen diren kan-paina guztiek dute jolas giroko kon-notazio bat. "Ikastola barruko eta ikastola arteko ospakizunak egin izan dira. Kontuan izan behar da gizarteak betidanik ospatu izan dituela festa gi-roan bere lorpen guztiak". Hala, euskararekin lotutako hainbat festa ospatzen hasi ziren: ikasturte amaiera-ko festa, Ikastolen eguna, Inauteriak, Herriko Festak, Eguberriak, Santa Ageda, Kilometroak, etab. Horrez gain, hasieran *Euskaraz Bizi* proiektua martxan jarri zuten lau ikastolen artean Kirol Olinpiadak edota mendi-ko irteera bat egiten zen eta gaur egun ere oraindik urtero egiten da eta Argi-txoren gutunontzi bat jartzen da Eus-kal Herriko mendiren batean.

Ikastolaz kanpoko eremuak

Laskorain ikastolako irakasle ba-tek dokumentalean aipatzen duenez, proiektuak ez zuen eskola tarte ba-

karririk hartzen, baizik eta ikaslea ha-rrapatu nahi zuen bere esparru guz-tietan. "Horrexegatik, ikastolako or-duz kanpo edo horren inguruan gel-ditzen den denborak garrantzi handia izan du beti *Euskaraz Bizi* proiektu-an. Afektiboki mundu hori da ikas-learentzat balio handiena duena: ki-rola, jolasa, denbora libre..."

Horren baitan, kontuan izan dira jantokia, autobusa, ikastolaz kanpo-ko ekintzak, etab. Hala, 1987an *Euskaraz Bizi*-ren baitan, ikastolaz kan-poko esparruak euskalduntzea ildo estrategikoa dela eta, Laskorain Kirol Elkartea sortu zen eskola kirola kude-atzeko eta Tolosa mailan oso erdaldu-na zen esparruan euskararen erabile-ra sustatzeko. 1990-91n, berriz, Kaz-kabarra aisialdi taldea eratu zen, ikas-tolaren gidaritzapean, ikasleen aisial-di ekintzak ikasturtean zehar eta uda-lekuak antolatuz. Monitoreak Batxi-lergoko ikasleak eta ikasle ohiak dira.

Emaitzak

Sekulako emaitzak lortu ditu *Euskaraz Bizi* proiektuak Laskorainen. Ikasleek eurek hizkuntza neurketak egin ohi dituzte eta gero neurketa ho-riek Udalak egiten dituen neurkete-kin alderatzen dira. Antzeko datuak ematen dituzte biek: % 95etik gor-koa da euskararen erabilera. Halaxe

diogauregungo Laskorain ikastolako zuzendari Jone Urteagak: "Nik uste, harrokeriaz ez, baina harrotasunez, esan dezakegula, emaitzak oso onak direla, azken zortzi urteetan ez garela-ko jaitsi %95eko erabileratik".

Emaitza hain onak izanik, Larreta-ren ustez, *Euskaraz Bizi* proiektua-ren inguruan aurrera begira duten le-hen erroka nagusia da orain arteko-ari eustea: "Baina kanpainetan euska-raren erabileratik harago dauden es-parruak ere hartu nahi ditugu eta eus-kal kulturarekin zerikusia duten al-derdiei modu sakonagoan heldu. Etorkizuneko beste helburuetako bat gurasoen euskara erabileran gehiago eragitea da, baina eremu horretan es-ku hartzea ez da batere erraza".

Euskaraz Bizi proiektuaren arra-kasta ikusita, Larretak eta Olanok Las-korain ikastolako esperientzia ezagu-tarazi nahi izan dute. Horrexegatik, dokumentala Laskorain ikastolan bertan nahiz Ikastolen Elkarteko HIZ-PRO mintegian aurkezteaz gain, In-terneten ere zintzilikatuko da kon-tsultatu edo erabili nahi duen oroent-zat eskuragarri. Izan ere, dokumen-talaren amaieran Kike Amonarrizek dioen moduan, Euskal Herrian baka-rrik ez, Europa mailan nahiz mundu osoan ere erakusteko moduko ere-dua da Tolosakoa.



Asteko protagonista

Konsue SALINAS

Guztiok dugu talde bateko kide garela sentitzeko beharra, eta haurrek ere bai. Horregatik, irakasleak erne egon behar du, eta gelan inklusioaren ikuspegitik lan egin behar du. Horrek esan nahi du haur bakoitzak leku bat izan behar duela taldearen barruan, eta aintzat hartzen dutela sentitu.

Hori dela-eta, duela urte batzuk, Haur Hezkuntzako 3 urteko gelan, Protagonistaren astea izeneko proiektua egitea erabaki genuen (Arturo Kanpion HLHI, gaur Bernart Etxepare). Helburu nagusia zen haur bakoitzak bere lekua aurkitzea eta izatea gelaren barnean, eta gelako kide sentitzea. Alde horretatik, familiarren eta eskolaren arteko lankidetzaren onak haurraren ongizatean eragin positiboa duela jabetuta, familiarren gelan parte hartzea ahalbidetuko zuten estrategiak planteatzea erabaki genuen. Esperientzia ezin aberasgarriagoa izan zen guztiontzat (irakasle, haur eta familiarrentzat). Proiektu horretan egindako ahalegina 2009an aitortu zioten, Nafarroako Gobernuko Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzuak deitutako Bizikidetzaren inguruko berrikuntzako saria eman baitzioten.

2012-2013 ikasturtean, Nafarroako beste ikastetxe batzuetan aurkeztu dugu proiektua (NHBBZko Hezkuntza-laguntzako taldea ematen ari



den Barnean hartu mintegiaren barruan). Prestakuntza horretan parte hartzen ari diren ikastetxe askok (Olaztiko Domingo Bados HLHI, Iturmendiko Arrano Beltza HLHI, Arbizuko Ikastetxe Publikoa, Iruñeko Cardenal Ilundain HLHI, Berriozarko Mendialdea1 HLHI, besteak beste) esperientzia hau abian jarri dute, eta egin duten balioespina hain izan da positiboa, non artikulua idaztea erabaki baitut, Maider Razkinek eta biok hasieran egin genituen jarduera nagusien laburpenaren bidez.

Proiektuaren laburpena

Astero haur bat izan da gelako protagonista, eta jarduera guztiak egokitu egin dira, haurrak hori senti dezan. Familia guztiek hartu dute

parte, beren interesen arabera lan-tegi bat eginez. Korridorean paratutako argazkien bidez, bizipen horiek gainerako haur eta familiei aurkeztu dizkiegu. Era berean, ipuin pertsonalizatu bat egin dugu, eta dossier bat guztien istorioekin, "ipuin ibiltari" gisa etxetik etxera pasatu dena.

Helburuak

- Haurrak bere buruaren irudi positiboa izatea, "protagonista" gisa izandako bizipenetik abiatuta "norbaniako berdingabe" eta, aldi berean, "talde bateko kide" sentituz, haurraren gizarteko itasuna eta autonomia pertsonala sustatzeko.

- Familiarren eta eskolaren arteko harremana indartu eta hobetzea, irakasle garen aldetik badakigulako



bien arteko lankidetzak onak haurra-
ren ongizatean eragina duela.

- Bizikidetzaren eta gizarte-har-
remanen arauak ezarri eta barnera-
tzea, hainbat jardueraren bitartez
ikasleak, familiak eta geletako tuto-
reak elkar ezagutzeko ahalbidetzeko.

- Hezkuntza-erkidegoa osatzen
duten kide guztien parte-hartzea
ahalbidetzeko, eskola-giroa hobetze-
ko eta elkar ongi tratatzeko kultura
sustatzeko.

Jardueren deskribapena

Haur bakoitza protagonista izan
da astebetean. Aste horretan, ondoren
azaltzen diren jarduerak egin dira.

1. jarduera: haur bakoitzak bere istorioa kontatu du

Asteleheneretan, asteko protago-
nistak bere istorioa kontatu digu, be-
re familiak alde aurretik prestatuta-
ko ipuin batean oinarrituta.

- Bestearekiko errespetua indar-
tzen saiatzea: arreta jartzea besteak
hitz egiten duenean.

- Entzutea.

- Bestearen familiarekiko intere-
sa izatea.

- Jendaurrean hitz egiten ikastea,
lotsa gaindituta.

- Enpatiarako gaitasuna lantzea,

alegia, bestearen tokian jartzeko gai-
tasuna.

- Ulertzea nola sentitzen den bes-
tea entzuten ari zaizkionean, edota
ez zaizkionean entzuten ari.

2. jarduera: nire silueta

Asteartean, plastikako lan bat
egin dugu taldean; "SILUETA" izena
ipini diogu. Niki de Sant Phalle artis-
taren lanean oinarritu gara, baina as-
tero silueta desberdina eginez, bate-
tik bestera haur protagonista eta era-
bilitako teknika aldatzen zirelako.
Beraz, haur bakoitzak silueta bakar
eta errepikaezina du, eta guztiekin
erakusketa bat egin dugu ekainean.
Familiak gonbidatu ditugu erakuske-
tara eta askari batera.

- Talde handian lan egitea. Talde-
an gozatzea.

- Talde handian plastikako ataza
bat lantzea, benetako erronka baita,
bizikidetzako oinarrizko arauetara
dagoenik.

- Txanda gordetzen ikastea, eta
bestearen tokia errespetatzen, elkarri
bultza ez egiten, xede komun bate-
kin taldean lan egiten, norberaren-
tzat izan ordez ikaskide batentzat izan-
den artelana den artean egi-
ten...

- Plastikako hainbat teknika ikas-

tea, bereziki curriculumeko helburu
direnak landuz, besteak beste: moz-
tea, itsastea, puntzoiekin zulatzea,
papera itsastea, oihalak, askotariko
materialak, estetikarekiko gustua
lantzea...

3. jarduera: erretratuen nire koaderno

Asteazkenetan, protagonistaren
erretratu egin dugu. Mahaiak biribil
erdi bat osatuz paratu ditugu, eta er-
dian protagonista eseri da, aulki bate-
an, denek ongi ikusteko moduan.

- Haren fisikoari begiratzea, be-
reziki erretratuari dagokionari; ale-
gia, burutik sorbalden gaineko alde-
raino: ile luzea ala motza duen, bela-
rritakoak daramatzan, kopeta-ilea
duen...

- Haurren arteko antzekotasunei
eta aldeei erreparatzea (ile motza du,
...-k bezala).

- Adina lantzea (grafia eta kopu-
rura). Haur bakoitzak idatziko du, ho-
rretarako propio prestatu dugun
"erretratuaren fitxan". Eranskinean,
fitxaren eredu bat sartu dugu.

- Idazkera ere lantzea: haur ba-
koitzak protagonistaren izena idatzi
behar du.

- Guztiarekin koadernotxo bat
osatzea, gero protagonistak etxera



eraman dezan.

- Lagun bati behatuz eta haren irudia marraztuz gozatzea eta ikastea norberak egindako lan bat ematen, eskuzabalak izaten.

4. jarduera: nire familia eskola-egun batean

Ostegun edo ostiraletan, haurren familia eskolara etorri da, eta alde z aurretik prestatu duten jarduera garatu dute beren seme-alaben ikas-kideekin.

5. jarduera: haur bakoitzaren dosierra prestatzea

Tutoreok egin dugu jarduera hau. Gutako bakoitzak ipuin bat egin du Word formatuan, aste osoan zehar ateratako argazkiekin eta jarduerak iradoki digutenarekin. Edozein modutan, azpimarratu behar dugu lan hau oso atsegina izan zaigula, besteak beste ikusi dugulako ikasgelako haurren familien eta gure arteko konfiantza-giroa sendotzen joan dela, eta jarduera guztiak giro polit eta jostagarrian bizi izan ditugula.

6. jarduera: aurreko asteko

protagonistaren horma-irudia

Astero, aurreko astean gelan gertatutakoa laburtzen duten argazkiak paratu ditugu, familiak elkar ezagutzen joan daitezten. Beraz, uste dugu nolabait ere parte hartu dugula gure geletako familien artean egun dauden giro ona, elkar ezagutza eta errespetua nagusi izan dutenean.

7. jarduera: ipuin bidaiaria

Datorren ikasturtean, dosierrak familiaz familia bidaiatuko du, "ipuin bidaiaria" balitz bezala. Asmo hauekin:

- Gogoratzea haur bakoitzari zer ekarpen egin dion asteko protagonista izateak.
- Gogoratzea protagonistaren familiak denbora eman zuela haurrekin eta irakasleekin batera lanean.
- Familien elkar ezagutza indartzea, dosierrean jasota daudelako izenak, anai-arrebak, aitona-amonak, familiaren anekdotak...

Proiektuaren baliospena

- Curriculumeko arlo guztiak landu ditugu. Beraz, curriculumeko helburuak betetzearen inguruko balio-

espena ezin da positiboagoa izan.

- Haur askoren autoestimua areagotu da. Gainera, ikasleen, irakasleen zein familien enpatia eta bestearikiko errespetua garatzen lagundu da. Besteari buruz jakiteko, bestea ezagutzeko edota sakontzeko jakin-mina areagotu da. Gureaz gain, familia eredu gehiago daudela ikasi dugu eta, orobat, horiek errespetatzen.

- Azpimarratu nahi dugu proiektu honek aukera paregabea eskaini digula kultura-aniztasuna lantzeko. Gure gelako haur guztien jatorria



ezagutu dugu. Orain, badakigu non dauden Bolivia, Brasil, Ghana, Angola, Etiopia, Errusia, Alemania... , egunerokoan arraza-desberdintasunak eta hizkuntza guztiekiko errespetua bizikidetzaren ikuspuntutik bizitu dugu, erabateko normaltasunez.

- Familiek esan digute ikasturte-angelan izan duten parte-hartzea oso bizipen positiboa izan dela, gelako dinamikara hurbildu direlako eta, hartara, tutoreekiko zein, oro har, eskolarekiko konfiantza areagotzeko balio izan dielako. Ikasturtearen bukaeran proiektua idatziz balioesteko eskatu dugu, eta hori guztia jasota geratu da.

- Proiektuaren helburu nagusia gizartean jarduteko gaitasuna gartzea bazen ere, sortu den dokumentazioa bera landu diren gainerako gaitasunak ebaluatzeko tresna bihurtu da.

- Haurrek eskatuta, gu ere izan gara protagonista astebetez; oso esperientzia aberasgarria izan da.

- Era berean, nabarmendu nahi dugu proiektuaren alderdi ludikoa, hainbat unetan oso dibertigarria izan baita.

- Familiak oso originalak izan di-



ra beren jarduera antolatzeko orduan. Oso trikimailu onak erabili dituzte haurren arreta bereganatzeko eta, horren ondorioz, familiek ere gure eskola-dinamika aberasten lagundu dute, oso ideia on eta berriekin. Haiei behatzen gauza asko ikasi dugu.

Bukatzeo

Egiaztatu dugu hezkuntza-esperientzia honek, lehen eskolatzeko-urtean eginda, haurraren eta ikastetxe-

ren arteko lotura afektiboa sortzen laguntzen duela.

Balioetsi dugu familiaren eta eskolaren arteko lotura indartzea hezkuntza-erkidegoko kide guztientzat dela onuragarria, elkarrekiko ezagutza errazten duelako eta kide guztien parte-hartzea sustatzen duelako, bizikidetzan, gizarte-harremanetan eta eskola-giroaren hobekuntzan eraginez. Zalantzarik gabe, horrek oso ondorio positiboak ekarriko ditu etorkizuneko hezkuntza-etapetan.

Zer ekarpen egin diezaioke eskolan diharduen irakasle edo hezitzaile bati Gestalt ildoko prestakuntzak?



Richie Hering-en arabera, 250 psikoterapia mota daude; horiek guztiak hurrengo hiru korrante hauetan sartzen dira:

- 1-PSIKOANALISIA EDO TEORIA DINAMIKOA
- 2-JOKABIDE-TERAPIA
- 3-PSIKOTERAPIA HUMANISTA

Hiru korrante horien sailkapena sortu ziren unearan araberakoa da; beraz, psikoterapia humanista da berriena. Errepresio sexualak utzi zituen ondorioei aurre egiteko jaio zen psikoanalisia. Geroago, XX. mendaren hasieran, teknologiaren bilakakerak bultzatuta, makinak pertsonen lekua hartzen hasi ziren. "Antsietatearen aroa" eragin zuen horrek, eta hala sortu zen jokabide-terapia. Azkenik, XX. mendearan amaieran, giza kiaren despertsonalizazioak eta gizagabetzeak "alienazio-aroa edo aisialdiarekin lotutako aspertze-aroa" ekarri zuen, eta psikoterapia humanista sortu zen hortik. Psikoterapia humanistak sentimenduei, emozioei eta bizipenei ematen die lehentasuna.



Maritxu JIMENEZ
GESTALT TERAPEUTA

Psikoterapia humanistak ez ditu kontuan hartzen norbanakoaren autorepentsamenduak, ezta haren iragana ere. Ikuspegi horretako hainbat psikoterapia motaren arabera, pertsona bizi den minutu bakoitzean ari da bere etorkizuna sortzen. Horren ondorioz, psikoterapia humanistek bizitzako berehalako unean jartzen dute arreta eta energia guztia.

Psikologia humanistaren oinarritzko printzipioa da ekintza terapeutikoaren bidez bultzatzen diren aldaketak bizipen-prozesu baten bitartez gertatzen direla. Hiru prozesu hauen bidez gertatzen da hori: "konturatzea", "erne egotea" eta "kontzientzia hartzea" (*awareness*).

Psikoterapia humanistaren barnean, Gestalt terapia azpimarratu nahi dut. Gestalt terapia Fritz eta Laura Perlsen sortutako psikoterapia da, garapen pertsonala lortzeko metodoa. Hauek dira Gestalt terapiaren oinarritzko printzipioak:

1. Orainean oinarritzea: terapia-egoeran "gaur egun" (orain) eta "espazio honetan" (hemen) nabarmentzen dira.
2. Esperientziarekiko arreta eta onespena: "konturatze" fisikoa, emozionala eta mentala.
3. Norberaren erantzukizuna: "konturatze" horren ardura hartzea.

Prozesu terapeutikoa hiru arlotan oinarritzen da: kontzientzia, esperientzia eta harremana. Pertsonari kontzienteago izaten laguntzen dio,

hau da, bere burua hobeto ezagutzen, horrela, bere beharrak argi eta garbi identifika ditzan eta terapian zein kalean esperientzia berri eta sendatzaileak bizitzeko aukera izan dezan.

Fritz Perls psikoanalisian aditua zen, eta soilik korrante horri buruzko prozesuak lantzen zituela sentitzen zuen, emozioak eta sentimenduak landu barik utzita. Horregatik, Gestalt terapiak, alde batetik, psikoanalisi izan zuen oinarri, eta, bestetik, ekialdeko erlijioen eragina, taoismoarena eta zen budistarena, hain zuzen ere.

Gestalt terapiak nork bere burua hobeto ezagutzera bultzatzen du. Banakako terapiaren bidez edo talde-terapiaren bidez lantzen du hori.

Gestalt ildoko prestakuntzak eskolan diharduen irakasle edo hezitzaile bati egin diezaiokeen ekarpena:

Gestalt terapiak beharrezkoa ikusten du terapeutak bere indar eta ahuldadeen kontzientzia izatea eta norberaren mugak, pertsona den heinean, ezagutzea. Terapeuta bakoitzak, beraz, bere prozesu terapeutikoa du. Bere ahalmena ezagutzeko eta lantzeko aukera emango dio horrek.

Gestalt terapiak harremanean jartzen du indarra. Terapeutak eta paziente edo bezeroak sortuko duten harremanean oinarrituko da terapiaren indarra. Alde horretatik, paziente edo bezero bakoitzarekin tratamendu berezia egingo da. Gestalt terapiaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa bat malgutasuna da; hemen eta orain aurrera jarraitzeko muga zein den jakiten laguntzeko terapeutak unean-unean egokienak diren teknikak erabiliko ditu, eta une eta pertsona bakoitzarekin berezia eta eksklusiboa izango da.

Bestetik, aurretik esan dudan moduan, Gestalt terapiaren oinarrietako batekialdeko filosofia da. Horren arabera, inork ez daki norberak baino hobeto zer behar dituen eta behar horiek zelaz ase ditzakeen. Terapeutak

organismoari entzuten eta hura ezagutzen lagunduko dio paziente-bezeroari, beti ere giltza paziente-bezeroak berak duela jakinda.

Gestalt terapiaren arabera lan egiten duen terapeutak ez du bilatzen paziente-bezeroa manipulatzeko, oraindik ezagutzen ez duen horri argia ematea baizik. Alde horretatik, terapiara datorren pertsonak berarentzat egokia den hori aukeratzea bilatuko du terapiak, eta egokia ez dena uxatzea.

Horregatik guztiagatik, beste pertsona batzuk zaintzen lan egiten duen edozeinentzat izan daiteke lagungarri Gestalt terapian aditua izatea. Batetik, pertsonari kontzienteago izaten laguntzen diolako, eta hala, laguntzen, hezten edo zaintzen ari den pertsona edo pertsonak modu osoagoan ikusteko aukera izango duelako hezitzaileak; eta, bestetik, pertsona horiek modurik egokienean gidatzeko baliabideak emango dizkiolako terapiak.

Irakaskuntza alorreko hezitzaileak bitan sailkatuko nituzke: alde batetik, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dihardutenak, eta, bestetik, DBH eta Batxilergokoak. Lehenengo

bietan haurrak heztea da lan nagusia; beste bietan, aldiz, nerabeak hezteaz gain, prestakuntza akademikoak indar handiagoa hartzen du. Bietan da baliagarria Gestalt terapia. Jakin behar harko dugu zein diren norberak, pertsona den heinean, dituen ahalmenak eta mugak, eta horixe indartu hezitzaile-lanean. Egokiena, espezialitatea aukeratu aurretik, prozesu horretatik pasatzea izango litzateke, baina, tamalez, oso gutxitan gertatzen da hori. Hezitzaile bakoitzak leku eta etapa egoki bat izango ditu, bere izaeraren eta dituen ahalmenen eta mugen arabera. Egokiena hori kontuan hartzea izango litzateke. Gehienetan, ordea, aukera hori egiterakoan beste faktore batzuk hartzen dira kontuan; beraz, Gestalt terapiaren helburuetako bat irakaslea egokituko zaion taldera ahalik eta modurik egokienean moldatzea izango da. Horretarako, irakasleak, bere buruaz dakiena baliatuta, taldearen indarrak eta mugak ezagutu behar ditu, eta horiek lantzea.

Nire esperientziaren arabera eta nire bulegoan ikusten dudaren arabera, terapiara datozen lagun askok pertsoneri laguntzen edo horiek hezten edo zaintzen lan egiten dute.



Gestalt terapiaren sortzaileak, Laura eta Fritz Perls, ezkerrean.

argitalpenak



Osteratxo bat parkean

Anthony Browne

(itzulpena: Manu Lopez Gaseni)

PAMIELA-KALANDRAKA

Bi istorio paraleloz osatutako istorioa da; haurren eta beraien txakurren naturaltasun eta xalotasunari esker bi istoriook bat egiten dute; bitartean, Argiren aitak eta Pinttoren amak ez diote elkarri begiratu ere egiten parkean emandako denbora guztian. Batzuen inkomunikazioa eta besteen askatasuna bereizten dira. •



Hartza eta tximeleta sarea

Susanna Isern /

Marjorie Pouchet

OQO / TXALAPARTA

Bildumagileek tximeletak ehizatzeo erabiltzen duten sarea, kasu honetan, tximeletak salbatzeko erabiliko du protagonistak. Basoan bizi den hartza, onberatasun hutsez ariko da salbamendu lanetan, inolako ordainik itxaron gabe. Hala ere, jasoko duen ordaina tximeleten laguntza eta adiskidetasuna izango da. •



Mux Munstroa

Pello Añorga Perez /

Jokin Mitxelena Eritze

ELKAR

Protagonistak ez dauka anaiarik ez arrebarik ere. Aita eta ama ditu, etxe banatan, ordea. Batzuetan bati egokitzen zaio bere 'zaintza' eta bestetan, besteari. Horrek libratuko du bere logela txukundu beharra izate-tik. Badu baita ere lagun berezi-berezi bat: Mux munstroa. 6 urtetik aurrerako umeentzako liburua da. •



Lehen irakaspenen liburua

Teresa Telletxea / Pilar Gimenez

SM

Liburu dibertigarri honekin, haurrak lehen kontzeptuak ikasiko ditu: koloreak, zenbakiak, formak, aurka-koak, eta abeletxe, baso, oihan, sabana edota poloetan bizi diren animalien izenak. Hau guztiaz gain, historiaurrekoak eta arraroak diren animaliak, ipuinetako pertsonaia maitatuenak eta oso interesgarriak diren beste gai batzuk. •



Urretxindorra

Joxan Ormalazabal / Iraia Okina

ELKAR

Joxantonio Ormazabalek galdera hunkigarriak egiteko ohitura zuen, bihotza uzurtzeraino estutzen duten horietakoak. Galdera zirrargarri bat da istorio honen abiapuntua. Erantzunaren bila zebilela, Iraia Okinarekin egin zuen topo. Haren ilustrazioek eman diote idazlea bilatzen ari zen poesia eta kolorea, sentimenduz betetako erantzuna. •



Orentzi

Manolo Hidalgo

PAMIELA-KALANDRAKA

Irudien indar plastikoarekin, mila hitzekin baino gehiago azaldu litekeela erakusten du liburu honek. Orentziren istorioa kontatzen du bertan Manolo Hidalgo idazle eta ilustratzaileak. Orentzik elurretan jolastu nahi zuen neguan, baina zuhaitzetan karamilatzen zitzaizkion adarrak. Arzo bat konpondu nahian, handiago batean sartu zen. •

elhuyar

HIZTEGIEN

ARO BERRIA

- ELHUYAR HIZTEGIA
- ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA
- ELHUYAR OINARRIZKO HIZTEGIA

Euskara/Gaztelania
Castellano/Vasco

Elhuyar hiztegien 4. edizioa eta hiztegiak.elhuyar.org webgune berria.
BERRITZAILEA, IREKIA, GUZTIONA.



* Elhuyar Hiztegia eta Elhuyar Hiztegi Txikia erabilgarriak dira hiztegiak.elhuyar.org webgurekin gune apartetura.

elhuyar hiztegien edizio berria

4.000 sarrera gehiago, 20.000 guztira. Euskararen eta gaztelaniaren lexikoa izan diren azken berrikuntzetan. Espezialitate-ardeta or lexiko berria.

→ www.elhuyar.org/denda **WEBGUNEAN EROSI!**

hiztegiak.elhuyar.org

Bitaketa-aukera berriak. Hitzen anizketa erditireko aukera. Hiztegien etengabeko esuneraketa.

→ Elhuyar hiztegi elebidun guztiak, **DOAN KLIK BATEAN**

elhuyar hiztegia *kindle*-n

El hiztegi eldugo zure irakurgailuratu baten, euskara-gaztelania, basque, gaztelania-euskara. Honako irakurgailuekin instalatu dezakezu: Kindle Paperwhite, Kindle Classic, Kindle Touch eta Kindle DX.

→ www.elhuyar.org/hiztegiak-kindle



elhuyar

hik hasi-ren proposamena

KOLOREKOLORE

Nahierara pintatzeko eta osatzeko ilustrazioak

KoloreKolare proiektuak eguneroko bizimoduari loturiko nahiz euskal gaien inguruko ilustrazioak Internetetik doan jaisteko aukera ematen die haur, guraso eta hezitzaileei. Proiektuaren helburua kalitate oneko eta dohainik eskura litezkeen ilustrazioekin haurren eta gazteen sormena piztea eta lantzea da.

Olentzero edo Mari Domingiren afixa bana margotzeko; urtebetetze on! opatzeko; aitona-amonak agurtzeko; maitasuna adierazteko... ha maika arrazoi egon litezke postartartel bat koloreztatzeko, mozteko edo artistikoki osatzeko. Horixe da KoloreKolare webguneak eskaintzen duena. Eguneroko bizimoduari eta pertsonaiei nahiz Euskal Herriko ohiturei edo berezitasunei loturiko ilustrazioak daude eskuragarri www.kolorekolore.com webgunean, nahi dituen orok, izan haur, guraso edo hezitzaile, erabiltzeko.

Nerea Garmendia diseinatzaileak sortu zuen KoloreKolare proiektua. Alde batetik, Olentzero, Mari Domingin edo Euskal Herriko paisajeei, festei eta ohiturei loturiko ilustrazio gutxi eskaintzen zituelako Internetek, eta bestetik, zeuden gutxi horiek kalitate gutxiak zirelako. Orain beraz,



kalitate onean eta dohainik eskura litezke ilustrazioak haurren eta gazteen sormena piztu eta lantzeko prest. Garmendiaren helburua ilustrazioen tematika zabaltzen joatea da, eta baita tematika bakoitzaren barruan ere aukera zabaltzen joatea.

Adimen emozionala lantzea, helburu

Momentuz, zorion agurrei loturiko ilustrazio bilduma zabala dago webgunean, urteberriak, urtemugak, Eguberriak... zoriontzeko baliagarriak diren fitxa ugari daude; baita maitasun-mezuak dituztenak ere... Beste atal batean, Euskal Herriko paisajeak eta ohiturak margotzeko aukera ematen dute ilustrazioek, Donostia, Olentzero, Mari Domingin... Baina badira, horiez gain, tematika unibertsalagoak ere, hala nola, pailazoak, sorginak, animaliak, loreak... margotzeko eta osatzeko aukera eskaintzen dutenak, guztiak ere.

Fitxa hauek istoriak marrazteko gonbidapena luzatzen diete hurrei, alde batetik, sormena lantzeko prestaturiko galderak eta proposamenak eskaintzen dira, batzuk zuri-beltzean pintagai; eta beste batzuk koloretakoak dira, haurrek osa ditzaten. Bestetik, aurrerago, argibide simple batzuen laguntzarekin, adimen emozionala garatzea helburu duten fitxak egongo dira eskura. Atal hori Edurne Saizar psikologo eta hezitzailearen laguntzarekin prestatzen ari da diseinatzailea.

Garmendiarenak dira une honetan webgunean dauden ilustrazioak, baina diseinataile, ilustratzaile eta eduki sortzaile orori ateak irekiak ditu proiektuak, asmoa hurrei euren sormena garatzen laguntzeko ahalik eta material onena eta ugariena sortzea baita.

Irudi hauek jaiste eta erabiltzea oso sinplea da. Webgunean Din-A4 tamainako fitxak daude eskegita, eta inprimatzeko prest daude, koloretan edo zuri-beltzean, etxeko inprimagailu arruntetan inprimatzeko prest. Eskainitako ilustrazioak erabilera pribatu edo hezitzaileako daude baimenduak.



KoloreKolare

www.kolorekolore.com

Lau atal ditu webguneak: *Koloretan* eta *Ko-reztatzeko*, *Istoriok marraztu*, eta *Animazioak*. Lehen bi atalen barruan, Bihotzetik, Geureak, Festak, Mozorroak, Natura eta Istoriok sailetan daude ilustrazioak. *Istoriok Marraztu* atalean sormena lantzeko ilustrazioak daude, eta aurrerago, adimen emozionala lantzeko proposamenak egongo dira. Datozen hilabeteetan animazioen atal bat ere egongo da

Nola erabili?

www.kolorekolore.com webgunean eskainitako ilustrazioak erabilera pribatu edo hezitzaileako daude baimenduak. Beste erabilera bat nahi izanez gero, egilearekin harremanetan jarri behar da: esaiguzu@kolorekolore.com





Karmele JAIO

IDAZLEA

Eskolako lehen egunetako irudi bat iltzatuta daukat oroimenean. Umeen zaratak eta algarak entzuten ditut, gela bakoitzetik ume andana irten da jolas-toki moduko batera. Ni beldur naiz. Neska-mutilengana hurbildu eta haiekin jolastea helburu eskuraezina da niretzat, harrapaezina. Lotsak paretara nauka lotuta, beso eta hanka kateatuta ditut, josita mingaina. Paretaren kontra egiten dut sorbaldarekin, eskuak nire gorputza eta paretaren artean zapaldu eta min egin arte, burua makurtuta, lurrean dauden harri-koskorrei begira. Ez dakit hiru, edo lau edo bost urte nituen, baina galdetuz gero zein den eskolako nire lehen oroitzapena hori dela erantzungo nuke.

Bere ingurunetik bortizki ateratako animala baten antzera ikusten dut neure burua, ikaratuta, eskolako bazter batean.

Eskolan ematen da bakartasunarekin dugun lehen harremana; ikasten dugu bizitzari bakoitzak egin behar diola aurre dituen tresnekin, dituen baliabideekin, berak bakarrik. Eta bakoitzak dohain natural batzuk ditu, noski, batzuk berritsuagoak dira, beste batzuk isilagoak; batzuk lotsatiak, beste batzuk ausartak... Baina bakoitzak bere geneetan dakarrenarekin batera, gure izateko modua ikasi egiten dugu baita ere, inguruan ikusten dugunetik eta eskolan jasotzen dugunetik gehienbat.

Nik gauza asko ikasi nituen ikastolan. Idazten ikasi nuen, baita biderketak egiten nahiz eta inoiz ez dudan ondo ikasi zazpiaren biderkatzeko


Zazpiaren taula baino gehiago

taula. Baina orain, nire hezkuntza ibilbideari urrunetik begiratuta, gabezia bat sumatzen dut. Eduki asko ikasi nituen, baina bizitzan hain beharrezkoak diren beste dohain batzuk ikasteko ez nuen laguntza handirik izan, edo ez dut gogoratzen behintzat: pertsonen arteko harremanak lantzeko, emozioak modu natural batean azaltzeko, lotsari edo beldurrei aurre egiteko, gaur adimen emozionala deitzen dena garatzen ez ziguten erakutsi.

Ni ume bat nintzenetik hona, gauzak asko aldatu dira eskola munduan, baina ez dakit oraindik emakume eta gizon orekatuak eta ahalik eta zoriontsuenak izateko beharrezkoak diren hainbat eta hainbat ikasgai ez diren kanpoan geratzen. Eta ez naiz, noski, zazpiaren biderketa taulaz ari, zazpiaren taula madarikatuaz.

“Positiboa izan daiteke laztan bat, edo makilkada bat; eta suntsitzen gaituena izan daiteke opari bat”

Antonio Mendizabal



Hezkuntza Euskal Herrian atzo eta gaur



Izena
DOAN
eman

Antolatzaile eta
laguntzaileak

Garaian
Auzolanaren Erakundeak eta
Kortxe Institutuko Erakundeak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



hh
hik hasi



**Filosofia eta Hezkuntza Zientzien
Fakultateko Areto Nagusia
Donostia**

2013ko Azaroaren 14 eta 15an

Izen-ematea: Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko Idazkaritzan, Maria Martinez. Izen ematea egiten dutenek ziurtagiria jasoko dute. Emaila: maria.martinez@ehu.es

Purritx, Porrotx eta Mari Motots



Bizipoza CD berria:
20 ipuintxo eta 20 abesti.

Sentitu, pentsatu, ekin!
DVD berria:
Zuzeneko ikuskizuna eta erreportajeak.



Partxisa eta Zazpikoloroaren jolasa:
Familian eta lagunartean jolasteko.



Zazpikoloroa
Plaza ipuina:
Bilduma berriko bigarren ipuina.



 eskaerak
www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOP.E

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404